

2025

3. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía

EAEKO EKONOMIAREN

HIRUHILABETEKARIA 2025

3.HIRUHILEKOA

Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke : <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 2.a, 2025eko urria

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1–01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea eta itzulpena: Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

ISSN: 3101-1578 (online bertsioa)

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	26
Arlo finantzarioa	28
Aurreikuspenak	35

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	6
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	32
2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (I)	41
2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (II)	42

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioak produktuen arabera	17
Esportazioen helmuga	18
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	25
Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abuztua).....	27
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Kreditu eta gordailuak.....	34
Ekonomia aurreikuspenak.....	36
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2025eko iraila)	38
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2025eko iraila).....	39
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiru hilekoka (2025eko iraila)	40

LABURPENA

2025eko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak %2,2ko urte arteko hazkundera izan zuen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, eta horrek urte hasieran abiatutako suspertze bidea sendotu zuen. Aurrerapen hori 2024ko laugarren hiruhilekoa %2,0ko BPGarekin itxi ondoren gertatu da, ekitaldi hura hasi zeneko %3,1aren oso azpitik, orduan izandako dezelerazio nabarmenaren isla. Eustatek kontabilitate nazionalaren goranzko berrikuspena egin izanak joera hori areagotu du. Bigarren hiruhilekoko datuak Ekonomia Zuzendaritzak ekainean egindako aurreikuspena gainditu zuen hamarren batean (%2,1). Aurrerapen hori Espainiako ekonomiaren dinamismoarekin bat dator (%3,1eko hazkundera) eta euroguneko azelerazioarekin ere bai (%1,5). Hala ere, aurreikuspenen arabera, 2025eko BPG 2024koa baino apalagoa izango da, nahiz eta osaera antzekoa izan.

Europako herrialde nagusien ahultasuna industriaren jarduera eskasaren ondorioz gertatu zen, eta horrek Euskadiko sektoreari ere eragin zion. Horrela, EAEko industria balio erantsiak %0,1eko urte arteko hazkundera izan zuen, aurreko datuen azpitik argi eta garbi, eta horrek moteltze prozesua areagotu zuen. 2024aren hasieratik, sektoreak %2,9ko hazkundetik ia hazkunde nulura igaro zen. Manufakturen kasuan, atonia are nabarmenagoa izan zen; sektorea geldirik egon zen (%0,0). Dinamismo falta horren arrazoi nagusiak kanpo eskariaren ahultasuna, AEBetako merkataritza eta zergen politikaren aldakortasunetik eratorritako ziurgabetasuna eta zenbait teknologiren garapenari buruzko zalantzak izan ziren.

Aitzitik, eraikuntza sektorea hazkunde tasen arabera sektore dinamikoena bihurtu zen, balio erantsia %3,1 handituz, aurreko erregistroa baino 1,4 puntu gehiago eta ekonomiaren batez bestekotik nabarmen gora. Eraikuntzaren koiuntura indizea %7,6ra igo zen, etxebizitzaren salerosketak %28,6ko hazkundera izan zuen, eta Gizarte Segurantzaren afiliazioak %1,9 egin zuen gora, datozen hiruhilekoetan jardueraren hazkunde gehiago iragarritz.

Zerbitzuak EAEko ekonomiaren hazkunderaren oinarri izaten jarraitu zuten, bigarren hiruhilekoan balio erantsia %2,8 handituz, aurreko hiruhilekoaren gainetik eta azken bilakaerarekin bat. Sektorea osatzen duten hiru jarduera multzoetan indar nabarmena hauteman zen, bereziki merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen blokean, lehen hiruhilekoaren aldean lau hamarren gehiago hazi baitzen (%3,3). Sektore publikoari lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) hamarren batean hobetu zuten aurreko erregistroa, eta gainerako zerbitzuek (%2,7) apur bat moteldu zuten erritmoa, nahiz eta tonu hedakorra mantendu.

Eskariaren ikuspegitik, kanpo merkataritzak (atzerrira eta gainerako autonomia erkidegoetara) moteltze nabarmena izan zuen, eta esportazioek zein inportazioek aurreko hiruhilekoaren aldean indarra galdu zuten. Esportazioek %0,8ko hazkundera izan zuten (%2,0 aurrekoan), eta inportazioek %1,4ra arte moteldu zuten hazkundera (%2,4 aurrekoan). Bi emaitzen konbinazioak BPGaren hazkunderari kanpo saldoaren ekarpena negatiboa izan zela erakusten du, lau hamarren ingurukoa.

Beste behin ere, EAEko BPGaren hazkundera barne eskariaren bizitasunari esker gertatu zen, %2,6ko hazkunderarekin, lehen hiruhilekoaren aldean bi hamarren gehiago eta azken erregistroekin bat. Barne eskariaren bi osagai nagusiek bilakaera positiboa izan zuten, baina inbertsioaren hazkundera kontsumoarena baino askoz dinamikoagoa izan zen. Kapitalaren eraketa gordinak %3,5eko hazkundera izan zuen, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak %4,0 hazi ziren eta gainerako inbertsioak, eraikuntzarekin lotuagoak, %3,2. Azken kontsumoko gastuak %2,3ko urte arteko hazkundera izan zuen, azken hiruhilekoekin bat. Emaitza horretan funtsezkoa izan zen familien kontsumoaren indarra, %2,9ra arte bizkortu baitzen, enpleguaren dinamismoari eta inflazioaren moderazioarekin batera erosteko ahalmenaren berreskurapenari esker. Administrazio publikoen kontsumoak, aldiz, 2024ko erdialdean hasitako moteltze bidea indartu zuen eta %0,2ra jaitsi zen.

Bilakaera positibo hori lan merkatuan ere islatu zen, bigarren hiruhilekoan lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtutako enplegua %1,4 hazi baitzen, aurreko bi hiruhilekoen aldean hamarren bat gutxiago. Sektore guztiek ekarpena egin zioten hazkunderari, lehen sektorea izan ezik, horrek jaitsiera txiki bat izan baitzuen. Industria sektorean enplegua %0,2 hazi zen, eraikuntzan %1,9 eta zerbitzuetan %1,8.

Inflazioaren moderazioa izan zen EAEko ekonomiaren hazkunderaren beste gakoetako bat. Urte hasieran, aldakuntza tasa %3,5era igo zen, baina geroztik moderazio joera izan du, gorabehera puntualekin. Abuztuan, tasa %2,8an kokatu zen, eta azpiko inflazioa %2,5ean. Beheranzko joera hori ekonomia garatuetan ere ohikoa izan da, eta horrek banku zentral nagusiei interes tasak jaisteko aukera eman die, enpresen eta familien kostuak arinduz.


Azkenik, eskuragarri dagoen informazio koiuntural berriak eta testuinguruko hipotesien eguneraketak 2025erako eta 2026rako agertoki makroekonomiko baikorragoa osatzeko aukera eman dute. Zehazki, aurreikusten da BPG errealearen hazkundera %2,2koa izango dela aurten eta datorren urtean %1,9ra arteko moteltze leuna gertatuko dela. Enplegua, bestalde, %1,4 haziko da aurten eta 2026an hiru hamarren motelduko da, %1,1era arte.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2025eko bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak hazkunde egonkorreko tonua mantendu zuen, urtearen lehen zatian erakutsitako erresilientzia berretsiz. Aurrerapen global hori, batez ere, AEBetako eta Asiako ekonomia nagusien (Txina eta India) dinamismoari esker gauzatu zen, eta horrek moteltze sakonagoaren beldurra uxatu zuen, zenbait ekonomien dinamismo apalagoa konpentsatuz. Bestalde, euroguneak eta Europar Batasunak 2024ko erdialdean hasitako suspertze prozesua sendotu zuten. Bi eremu horiek aurreko urteko erregistro ahulenak gainditu zituzten, inflazioaren moderazioaren eta barne eskariaren hobekuntza gradualaren testuinguruan aurrera eginez.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

2025eko bigarren hiruhilekoan, garapen bidean dauden ekonomien bilakaera heterogeneoa izan zen, baina, oro har, positiboa. Txinak %5,2ko urte arteko hazkundea izan zuen, Asiako eta Europako esportazioek bultzatuta, nahiz eta barne eskaria ahula izan eta higiezinaren sektoreak oraindik norabide argirik ez erakutsi. Inflazioa ia zeroan mantendu zen uztailen, eta abuztuaren deflazio eremuan sartu zen (-%0,4), eta horren ondorioz, agintariek politika ekonomiko suspertzaileak mantendu zituzten: interes tasen murrizketak, banku erreserben jaitsierak eta kontsumorako dirulaguntzak, jarduera ekonomikoa sostengatzeko helburuarekin. India izan zen berriro ere ekonomia dinamikoena, %7,3ko hazkundearekin, inbertsioaren eta kontsumoaren bilakaera onari esker. Mexikok, bestalde, %1,2 inguruko hazkunde tasa lortu zuen, zerbitzuen sektorearen eta inbertsio publikoaren susperraldi partzialari esker, nahiz eta kontsumo pribatua merkataritza-ziurgabetasunak baldintzatuta mantendu zen.


Ekonomia aurreratuen multzoak hazkunde egonkorra mantendu zuen, AEBen, Japoniaren eta eurogunearen ekarpen positiboekin. ELGaren jarduera ekonomikoa %1,8 hazi zen, aurreko hiruhilekoen ildotik, erakunde horren bloke nagusien erresilientziaren isla. Oro har, hazkundera barne eskariaren indarrean oinarritu zen, kontsumo pribatuak bultzatuta, inflazioaren moderazioari eta lan merkatu sendoari esker, nahiz eta dinamismo apalagoaren zantzuak agertu. Inbertsioak bilakaera desorekatua izan zuen, eta esportazioek eginkizun mugatuagoa izan zuten herrialde gehienetan.

Zehatzago adierazita, Estatu Batuak berriro ere ekonomia aurreratuen artean hazkunde buru izan zen, BPGaren %2,1eko urte arteko hazkundearekin, aurreko hiruhilekoaren aldean hamarren bat gehiago. Barne eskaria izan zen hazkundearen motor nagusia, kontsumo pribatuak %2,4ko hazkundera izan baitzuen, inflazioaren moderazioaren ondorioz erosteko ahalmenaren hobekuntzarekin eta lan merkatu sendoarekin, nahiz eta traxioa zertxobait galdu. Abuztuan, langabezia tasa %4,3an mantendu zen. Esportazioek ere ekarpen positiboa egin zuten, dollarraren balio galera eta muga zergen ziurgabetasunaren aurrean eskaeren aurrerapenak medio.


Munduko ekonomia. BPGa (II)

Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta BEA.

Japoniak 2024ko bigarren seihilekoan hasitako bide positiboa luzatu zuen, eta BPGaren %1,7ko hazkundera erregistratu zuen. Jarduera ekonomikoa kontsumo publikoan eta enpresen inbertsioan oinarritu zen, bereziki higiezinaren eta kapital ondasunen arloan, eta kanpo arloak ere bultzada gehigarria eman zuen. Hala ere, kontsumo pribatuak, ekonomiaren eragile nagusietako

bat, tonu neurritsua mantendu zuen, inflazio iraunkorraren eta ziurgabetasun ekonomikoaren aurkako haizeek baldintzatuta. Zehazki, inflazioa banku zentralaren helburuaren gainetik mantendu zen (uztailean %3,1era igo zen), eta horrek familien erosteko ahalmenaren hobekuntza mugatu zuen. Langabezia tasa, azkenik, mugarri historikoa ezarri zuen uztailean, %2,3ra jaitsita, 2019ko abendutik izandako mailarik baxuena.

Merkataritza tentsio globalen testuinguruan, euroguneak ez zuen AEBetako muga zergen politikaren ziurgabetasunaren eragin nabarmenik jasan, eta hazkundera osagai domestikokoetan oinarritu zuen. BPGa %1,5 hazi zen bigarren hiruhilekoan, 2024ko erdialdean hasitako susperraldia sendotuz, eta horrek berretsi zuen berreskuratze leun baina iraunkorra. Hedapena barne eskariaren indarrean oinarritu zen, kontsumo pribatuak %1,3ko hazkundera izan zuen, eta inbertsioa hazkunderaren beste zutabe nagusi gisa finkatu zen, aurreko hiruhilekoekin alderatuta ibilbide egonkorragoa erakutsiz. Kanpo arloaren ekarpena apalagoa izan zen, esportazioek jarduera ekonomikoari ekarpen neutroa egin baitzioten. Langabezia tasa minimo historikokoan mantendu zen (%6,2 inguruan), eta inflazio orokorra, hiru hilabetez %2,0an egon ondoren, irailean %2,2ra igo zen.

Herrialdeka, Alemaniak egonkortze seinaleak erakutsi zituen, bigarren hiruhilekoan %0,2ko urte arteko hazkundearekin, aurreko hiruhilekoaren berdina. Aurrerapena apala izan arren, urte hasieran hasitako joera aldaketaren sendotzea adierazten du. Kontsumo pribatuak ekarpen positiboa mantendu zuen, inflazioaren moderazioari (%1,8 uztailean) eta familien konfiantza apur bat hobetzeari esker, eta gastu publikoak euskarria izaten jarraitu zuen. Inbertsioa, ordea, ahul mantendu zen, bereziki eraikuntzan eta ekipamendu ondasunetan, eta esportazioek ez zuten traxiorik berreskuratu. Industria sektoreak ez zuen suspertze argirik erakutsi, eta lan merkatuak dinamismo txikiagoaren seinaleak eman zituen, enplegu sorkuntza moderatuarekin eta sektore manufacturetan indarra galtzen hasita.

Frantzian, BPGa %0,8 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurrekoaren aldean azelerazio arina erakutsiz, osagai nagusien ahultasunaren testuinguruan. Barne eskariaren bilakaera desorekatua izan zen; kontsumo pribatuak hazkunde neurtua izan zuen, inflazioaren moderazioari esker (%0,6 maiatzean, %1,1 irailean), baina familien konfiantza oraindik hauskorra zen. Inbertsioa, aldiz, %1,0 jaitsi zen urte artekoan, hainbat hiruhilekotan jarraian emaitza negatiboak pilatuz, eraikuntzan zein ekipamendu ondasunetan. Esportazioek ahultasunari eutsi zioten. Lan merkatuak erresilientzia erakutsi zuen, baina enplegu sorkuntza aurreko hiruhilekoekin alderatuta motelagoa izan zen.

Italia, bere merkataritza bazkide nagusien aldean, hazkunde erritmoa %0,4ra jaitsi zuen, lehen hiruhilekoko %0,7aren aldean. Inbertsioa izan zen osagai dinamikoena, %2,5eko hazkundearekin, Superbonus programaren eta industriako ekipamendu ondasunen

berrikuntzaren bultzadari esker. Kontsumo pribatuak, ordea, hazkunde apala izan zuen, familien konfiantzaren ahultasunak baldintzatuta, eta esportazioek BPGari hamarren batzuk kendu zizkieten. Lan merkatuak egonkortasuna mantendu zuen, %6,0 inguruko tasarekin.

Espainiak, azkenik, hazkunde erritmo bizia mantendu zuen, BPGaren %3,1eko aurrerapenarekin, aurreko hiru hilabetearen aldean hamarren bat gutxiago. Europako bazkide nagusien aldean, barne eskariaren osagai guztiek ekarpen positiboa egin zioten BPGari, jarduera ekonomikoari guztira %3,5eko ekarpena eginez. Kontsumo pribatuak dinamismoa mantendu zuen, eta inbertsioak profila hedakorra erakutsi zuen, %5,8ko hazkundearekin. Esportazioak %4,2 hazi ziren, baina inportazioen gorakadak kanpo arloko ekarpena negatiboa bihurtu zuen. Lan merkatua Espainiako ekonomiaren ahultasun nagusia izaten jarraitu zuen: lanaldi osoko lanpostuak %3,5 hazi ziren arren, abuztuko langabezia tasa %10,3an kokatu zen, Europar Batasuneko altuena.

Urteko bigarren erdia seinale mistoekin hasi da, baina zikloaren jarraipena iradokitzen dutenekin. Munduko PMI konposatua 52,9ra igo zen abuztuan, azken 14 hilabeteetako maximoa, eta eurogunean agregatu guztiak hedapen eremuan mantendu ziren, nahiz eta manufakturrek hobekuntza apala erakutsi eta zerbitzuek indarra galdu. AEBek Europako hazkunde tasa gainditzen jarraitzen dute, nahiz eta kontsumoa eta enplegua neurtuagoak izan. Txinak kanpo arloko dinamismoa mantentzen du, barne eskari ahularen aurrean. Europako lan merkatuak egonkortasuna ematen du, eta inflazioa banku zentralen helburuetara hurbiltzen ari da pixkanaka.

Testuinguru honetan, oraindik ere badaude susperraldiaren erritmoa baldintzatzen duten ahultasun faktoreak. Alemaniako ekonomia merkataritza globalaren ziurgabetasunaren eta bere bazkide nagusien ahultasunaren menpe dago, eta horrek epe laburrean suspertzeko gaitasuna mugatzen du. Frantzia, egoera ekonomikoari ezegonkortasun politikoa gehitu zaio, François Bayrou lehen ministroaren kargugabetzearen eta gutxiengo gobernu berriaren ondorioz, eta horrek ziurgabetasun instituzionaleko aldi bat ireki du, jardueran izango duen eragina oraindik zehaztu gabe. Italian, industriak ez du suspertze argirik erakusten eta produkzioa geldirik dago, nahiz eta udako seinaleek zikloaren luzapena iradokitzen duten. Kontrastean, Espainiako Bankuak egindako aurreikuspenek adierazten dute Espainiako ekonomiak hazkunde sendoa mantenduko duela urteko bigarren sei hilabeteetan, nahiz eta lehen erdiarekin alderatuta apur bat moteldu, barne eskariaren tonua oraindik ere aldekoa den testuinguruan, enplegu sorkuntzarekin, baina kontsumoan eta inbertsioan moteltze seinu batzuekin.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2025eko bigarren hiruhilekoan, lehenengoaren aldean hamarren bat gehiago, urteko lehen seiuhilekoan dinamismo handia erakutsiz eta iazko azken zatiko hazkunde handiena hobetu zuelarik. Kasu honetan, argitaratutako datua Ekonomia Zuzendaritzak ekainean aurreikusitakoa baino hamarren bat handiagoa da, barne eskaria espero zenaren gainetik egon delako, nahiz eta lan merkatuak aurreikusitakoaren arabera jokatu. Horrek, era berean, inportazioen hazkunde handiagoa ekarri zuen, eta kanpo eskariaren ekarpen negatiboa areagotu. Barne eskariaren ezusteko hori bat dator urteko kontabilitatearen argitalpenarekin, zeinak, hain zuzen ere, iazko kapital eraketa gordinaren eta administrazio publikoen kontsumoaren berrikuspen garrantzitsua ekarri baitu, eta horren ondorioak urteko lehen seiuhilekora arrastatzen dira. Hazkunde erritmo hori ziurgabetasun ekonomikoak eta tentsio geopolitikoek markatutako ingurune batean garatzen da, Europako industriak dakartzan egiturazko arazoez baldintzatutako kanpo eskaerarekin batera, eta horrek euskal produkzio sistemarentzat eragin handia du.

ESKAINTZAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	3,0	2,5	2,8	2,3	2,0	2,1	2,2
Nekazaritza eta arrantza	12,2	4,3	4,5	3,4	3,4	0,6	-0,4
Industria eta energia	2,2	2,0	2,6	1,8	0,7	0,4	0,1
- Manufakturen industria	1,8	1,7	2,3	1,3	0,3	0,2	0,0
Eraikuntza	4,2	2,0	2,0	1,4	1,3	1,7	3,1
Zerbitzuak	3,3	2,9	3,1	2,7	2,5	2,7	2,8
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	3,8	2,0	1,9	1,2	1,7	2,9	3,3
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	1,2	2,9	3,3	2,9	2,2	2,0	2,1
- Gainontzeko zerbitzuak	4,2	3,5	3,8	3,6	3,2	2,8	2,7
Balio erantsi gordina	3,2	2,6	2,9	2,4	2,0	2,1	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,7	1,6	1,4	1,4	1,9	2,3	2,4

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren aldagaiek portaera heterogeneoa erakusten dute, eta industria eta energia sektoreek urte arteko %0,1eko hazkundea izan dute 2025eko bigarren hiruhilekoan, lehen hiruhilekoaren %0,4ko hedapena motelduta. Emaiza horrek jasotzen du, batez ere, manufaktura industriaren ekoizpen mailak geldirik jarraitzen duela iazko bigarren hiruhilekotik, hiruhileko arteko terminoetan azken hiruhilekoan %0,3eko jaitsiera izan baitu.

Egoeraren araberako adierazleek industriaren portaera ahula berresten dute, neurri handi batean kanpo eskariaren ahuleziak eraginda. Industria Produkzioaren Indizearen atzerakada bigarren hiruhilekoan, osagai energetikoaren hegakortasunak (-%9,4) ez ezik, ekipamendurako ondasunen (-%1,6) eta bitarteko ondasunen (-%0,9) ekoizpenaren jaitsierak ere azaltzen du. Aitzitik, kontsumoko ondasunen ekoizpenak %1,1eko gorakada izan zuen, ez-iraunkorren bultzadari esker (%1,4), eta iraunkorrek, berriz, ez zuten igoera txikirik izan (%0,1).

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
Industria							
Industria produkzioaren indizea	1,0	-1,1	-1,0	-1,0	-1,5	-1,0	-1,2
Negozio zifren indizea	-0,4	-5,0	-2,1	-6,8	-1,5	-0,5	-5,0
Industria giroaren indizea (maila)	-14,9	-8,6	-2,9	-2,5	-14,1	-13,7	-16,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	0,9	1,1	0,7	0,6	0,4	0,0
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	8,8	3,3	-0,5	1,8	5,2	4,6	7,6
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-17,4	-1,0	-29,0	-0,8	15,7	-27,6	-7,4
Etxebizitzen salerosketak	-13,9	13,6	-2,7	29,5	48,2	25,0	28,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,8	0,1	-0,3	0,2	0,5	1,2	1,9
Zerbitzuak							
Merkataritza salmenten indizea	0,6	0,6	0,1	1,1	2,6	1,2	0,7
Merkatuko beste zerbitzu batzuen	4,6	2,2	1,1	1,4	4,1	3,8	1,7
Negozio zifren indizea	2,9	0,7	1,6	1,1	3,3	7,1	5,2
Hegazkinen bidezko bidaiariak	24,0	5,4	7,4	0,5	3,2	1,6	6,5
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,0	3,4	2,8	1,1	3,1	0,5	8,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,8	2,0	1,5	1,4	1,3	1,2

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENaren datuetan oinarrituta.

Industria jardueraren koiunturako gainerako adierazleek ere ildo beretik jarraitzen dute: negozio zifren indizeak %5,0eko jaitsiera izan zuen (aurreko aldian, aldiz, %0,5ekoa), eta industria-giroaren indizeak -16,3 punturaino egin zuen behera (-13,7tik). Gainera, Gizarte Segurantzako afiliazioa industrian %0,0an gelditu zen, aurreko hiruhilekoetan oraindik afiliazio orokorraren ia parean mantentzen zen bitartean, eta gainerako adierazleen negatibotasunaren aurrean, sektoreko balio erantsi gordinaren goranzko berrikuspenetarako abiapuntu gisa balio zuen, enpleguaren sorrerarekin batera produkzioaren hazkundea zegoela adieraziz, eta ez produktibitatearen jaitsiera.

Eraikuntzak beste %3,1eko gorakada bat izan zuen aldi horretan, aurreko hiruhilekoko %1,7aren aldean, eta industriaren dezelerazioa arintzen lagundu zuen. Sektoreko adierazleek jardueraren hazkunde hori babestu zuten: eraikuntzaren koiuntura indizea %7,6ra igo zen, aurreko hiruhilekoko %4,6 altutik; etxebizitzaren salerosketa nabarmen hazi zen, %28,6, eta interes tasen jaitsiera zikloaren hasieran hasitako hedapenari eutsi zion; eta sektorearen Gizarte Segurantzako afiliazioa nabarmen hazi zen (%1,9), eta horrek jardueraren hazkunde berriak iragarri ditu hurrengo hiruhilekoetan. Etxebizitza berrientzako bisen datuek, berriz ere, sektorearen alde ahularen isla izan dira; izan ere, nahiz eta erregistro-estatistika irregularra izan, etxebizitza-eskaintzaren hazkundea ez da nahikoa ikusitako eskariaren hazkundea asetzeko.

Zerbitzuek aurreko hiruhilekoetako hazkundeari eutsi zioten, %2,8ko hazkundearekin. Hala ere, jarduera bakoitzak dinamika bereziari jarraitu zion. Merkataritza, ostalaritza eta garraioa %3,3 hazi ziren, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago, eta iazko hazkunde erritmoaren aldean bizkortzea berretsi zuten, etxeetako kontsumoak izandako gorakadaren isla gisa. Administrazio publikoarekin, hezkuntzarekin eta osasungintzarekin lotutako zerbitzuek jardueraren %2,1eko hazkundea izan zuten, eta horrek nolabaiteko moderazioa adierazten duela dirudi, nahiz eta hiruhileko tasei dagokienez bigarren hiruhilekoko hazkundea handia izan (%0,7). Sektoreko gainerako jarduerak, bereziki lanbidekoek, %2,7ko igoera izan zuten, baina dinamismoa apur bat galdu zen iazko azken zatiarekin alderatuta.



Turismoa eta aire garraioa ardatz dituzten zerbitzuen sektorearen datu berrienek, 2024an ikusitako moderazioaren ondoren, susperraldiak markatutako bilakaera erakutsi zuten. Hoteletako gaualdiak %12,0 hazi ziren 2023an, baina nabarmen moteldu ziren 2024an. Hala ere, 2025eko bigarren hiruhilekoan gorakada handia izan da (%8,8), eta horrek turismo eskariaren suspertze nabarmena iradokitzen du, Euskadik ekitaldi desberdinak hartu zituelako. Aldi berean, hegazkineko bidaiarien trafikoak antzeko ibilbidea izan zuen: 2023an %24,0ko hazkunde nabarmena izan ondoren, erritmoa %5,4ra moteldu zen 2024an, eta 2025eko lehen hiruhilekoan ere hazkunde apala izan zuen (%1,6). Hala ere, bigarren hiruhilekoan hobekuntza argiagoa izan da, %6,5eko igoerarekin, eta horrek bidaiarien fluxua partzialki suspertu dela adierazten du, gaualdien arrazoi berberengatik.

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,4 hazi zen bigarren hiruhilekoan. Hau, aurreko hiruhilekoetan erregistratutakoa baino pixka bat gutxiago da, eta horrela 2024ko eta 2023ko batez bestekoarekiko apur bat moteldu dela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, lan merkatuak dinamismo handia erakusten jarraitzen du, eta ekonomiaren hazkunde egonkorraz baliatzen jarraitzen du. Eustaten arabera, euskal ekonomiak lanaldi osoko 997.455 lanpostu behar izan zituen hiruhileko BPGa sortzeko. Serie historikoko zifrarik handiena da bigarren hiruhileko baterako, eta 2024ko aldi bererako behar izan zirenak baino 14.035 enplegu gehiago dira. Sortutako enplegu berri horietatik, gehienak (12.550 inguru) zerbitzu jardueretan sortu ziren; 1.150 enplegu inguru eraikuntzaren sektorekoak izan ziren, eta 350, berriz, industria-sektorekoak. Lehen sektoreak enplegua galdu zuen, nahiz eta galera mugatua izan, 15 lanpostu inguru.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak

Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak.

Urteko lehen hiruhilekoan gertatzen zen bezala, zerbitzuen sektorean enplegua sortzeak emakumeen parte hartze handiagoa ekarri zuen lan-merkatuan. BJaren arabera, bigarren hiruhilekoko enpleguaren hazkundeak bereziki emakumeei egin zien mesede. Emakumeen enpleguaren hazkunde tasa %2,0koa izan zen, eta gizonena, berriz, %1,5ekoa. Azken urtean, 9.700 emakumek aurkitu zuten lana, eta 7.900 gizonek. Ondorioz, emakumeen okupazio-tasa %69,6koa izan zen, eta gizonena, berriz, %74,2koa. Beraz, aldea 4,6 puntukoa izan zen eta aurreko urteko hiruhileko berean zegoen 5,9 puntuko aldearekin konparatzen badugu jaitsi egin zen. Oro har, 16-64 urteko biztanleriaren okupazio tasa %71,9koa izan zen bigarren hiruhilekoan, 17.600 landun gehiagorekin.

Era berean, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,2 inguruko igoerak izan zituen 2024ko azken bi hiruhilekoetan, eta zertxobait moteldu zen %1,1era arte 2025eko lehen hiruhilekoan, azkenik %1,0ra iritsiz bigarren hiruhileko honetan. Uztaileko (%1,1) eta abuztuko (%1,0) datuek nolabaiteko egonkortzea adierazten dute, %1,0ko hazkundearen inguruan. Sexuaren arabera, nahiz eta zerbitzuen hazkundea apur bat moteldu den (%1,2) emakumeek enplegu sortzaile handia den arlo honetan daukaten kontzentrazio handiagoari esker, orokorrean emakumeen aldeko diferentzialari eutsi zaio, hauen afiliazioa %1,2 igo baita eta gizonena berriz %0,8. Eraikuntzak, bestalde, hazkunde handia izan zuen (%1,9) eta industriak, berriz, agortze zantzuak, ekarpen nulua erregistratuz bigarren hiruhilekoan (%0,0), eta %0,1eko hazkunde oso motelak uztailean eta abuztuan. Jarduera-adarren arabera, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak nabarmendu ziren, azken urtean 2.000 afiliazio berri baino gehiago izan baitituzte; baita osasuna (2.000 afiliazio inguru) eta hezkuntza (1.500 afiliazio baino gehiago).

BJAren biztanleria aktiboari buruzko datuek emakumea lan merkatuan sartu dela berresten dute. Azken urtean, estatistika horrek adierazten du 1.600 emakume inguru sartu direla, eta 3.700 gizon inguruk utzi dutela lan-merkatua, guztira saldo negatibo txiki bat utziz. Enplegua sortzeak eta biztanleria aktiboaren beherakadak langabezian dauden pertsonen kopurua 19.700 pertsonatan murrizten lagundu dute. Ondorioz, langabezia tasa osoa % 5,7koa izan zen, 2024ko bigarren hiruhilekoan zenbatetsitakoa (%7,5) baino 1,8 puntu txikiagoa. Emakumeak biztanleria aktiboan sartzeak aurrera egin arren, langabeziaren murrizketak hiruhileko honetan gizonen alde egin du, gehiago murriztuz emakumeen kasuan baino. Bigarren hiruhileko honetan, langabezia tasak alde nabarmena erakusten jarraitzen du %6,1koa izanik emakumeentzat eta %5,3koa gizonentzat.

BPG errealearen (%2,2) eta enpleguaren (%1,4) hazkundeak lan faktorearen itxurazko produktibitatearen %0,7ko irabazia ekarri zuen, lehen hiruhilekokoa baino hamarren bat handiagoa eta batez besteko historikoa (%1,0) baino pixka bat txikiagoa. Sektoreka, zerbitzuek eta eraikuntzak bigarren hiruhileko honetan %1,0 inguruko produktibitateak mantendu zituzten bitartean, industria gelditu egin zen eta produktibitate galera txiki bat ere izan zuen. Industriaren kasuan, enplegua %0,2 hazi zen eta balio erantsia %0,1 soilik; zerbitzuetan, berriz, tasak horiek %1,8a eta %2,8a izan ziren. Eraikuntzan, enplegua %1,9 hazi zen eta balio erantsia %3,1.

Barne eta kanpo eskaria

2025eko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiaren hazkundera barne eskariaren sendotasunean oinarritu zen, eta kanpo saldoak lau hamarren kendu zizkion BPGaren hazkunderari. Ekarpen negatibo hori 2024aren amaieratik antzeko mailan mantendu da, nazioarteko testuinguru konplexu batean eta eskari ahulagoaren eraginez kanpo arloaren ahultasuna islatuz. Murrizketa hori, aurreko bi hiruhilekoetan bezala, inportazioek esportazioek baino dinamismo handiagoa erakutsi izanaren ondorioz gertatu zen. Hala ere, hiruhileko honetan, aurreko aldiarekin alderatuta, kanpo merkataritzak (Estatuko gainerako lurraldeetara eta atzerriara) indarra galdu zuen termino errealetan, eta horrek esportazioen zein inportazioen hazkunde apalagoa ekarri zuen.

ESKARIAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	3,0	2,5	2,8	2,3	2,0	2,1	2,2
Gastua azken kontsumoan	1,9	2,8	2,8	2,3	2,4	2,4	2,3
- Familien gastua kontsumoan	2,0	2,5	2,5	1,9	2,2	2,6	2,9
- Adminis. gastua kontsumoan	1,9	3,5	3,7	3,9	3,1	1,9	0,2
Kapital eraketa gordina	2,4	2,7	2,9	2,5	2,2	2,3	3,5
- Ekipamendu ondasunak	1,3	2,4	1,8	3,1	3,6	3,0	4,0
- Gainontzeko inbertsioa	3,2	2,9	3,6	2,1	1,3	1,8	3,2
Barne eskaria	2,1	2,8	2,8	2,4	2,4	2,4	2,6
Esportazioak	-1,1	0,1	1,3	2,6	0,6	2,0	0,8
Inportazioak	-2,2	0,4	1,4	2,6	1,1	2,4	1,4

Iturria: Eustat.

Lehenago adierazi den bezala, 2025eko bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomiaren hazkundera barne eskariaren indarrean oinarritu zen, urte arteko %2,6ko aurrerapenarekin, aurreko hiruhilekoaren aldean bi hamarren gehiago, azken aldien joerarekin bat. Hiruhileko honetan, inbertsioak hazkunde nabarmena izan zuen (%3,5), kontsumoaren (%2,3) gainetik. Hala ere, kontsumo pribatuak egin zuen BPGaren hazkundera ekarpen handiena, 1,7 puntu, inbertsioaren 0,8 puntuen aldean. Bi osagaiek bilakaera positiboa erakusten jarraitu zuten, Euskadiko jarduera ekonomikoaren sendotasuna eta dinamismoa islatuz.

Zehazkiago, azken kontsumoko gastuak erritmo sendoari eutsi zion, urte arteko %2,3ko hazkundearekin. Portaera on hori familien kontsumoaren bilakaera positiboan oinarritu zen, %2,9ra arte bizkortu baitzen. Enplegua hobetzeak eta erosteko ahalmena berreskuratzeak, inflazioaren moderazioak lagunduta, familiei beren gastu mailari eustea eta handitzea ahalbidetu die. Gainera, soldaten igoerek eta prezioen egonkortasunak familien konfiantza indartu dute, eta horrek kontsumorako prestutasun handiagoa ekarri du. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoak moteltze joera indartu zuen eta %0,2ra jaitsi zen, azken hiru hilekoetako baliorik apalenetako bat izanik.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	0,9	0,6	-1,1	2,7	0,9	-0,5	2,0
Txikizkako merkataritza indizea	3,2	3,0	1,6	4,6	4,3	4,5	5,6
Kontsumo ondasunen ekoizpena	1,1	-0,7	-2,3	-0,6	-1,8	1,0	1,1
Kontsumo ondasunen inportazioa	1,0	-4,0	-6,3	1,6	7,0	15,0	2,7
Turismoen matrikulazioa	5,9	5,9	0,5	15,1	6,9	8,5	29,1
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	4,0	-1,2	-0,8	-1,9	-2,5	-0,3	-1,6
Ekipo ondasunen inportazioa	10,5	-0,6	2,3	4,2	4,5	12,3	16,5
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	15,0	0,1	0,4	1,1	-13,1	-0,1	7,4
Etxebizitza berriak eraikitzeko oniritziak	-17,4	-1,0	-29,0	-0,8	15,7	-27,6	--
Lizitazio ofiziala	-28,3	51,5	39,1	-15,7	183,6	40,7	--

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordinari dagokionez, hiruhilekoak dinamismo nabarmena izan zuen, %3,5eko hazkundearekin. Ekipamendu ondasunetan egindako inbertsioak %4,0ko tasa lortu zuen, nahiz eta industrian moderazio testuingurua izan (%0,1); gainerako inbertsioak, eraikuntzari eta aktibo ukiezinei lotuagoak, %3,2 egin zuen gora, sektorearen bilakaera positiboaren ildotik.

Hiruhilekoan zehar, inportazioek 17.866 milioi euroko balioa lortu zuten, serie historiko osoan erregistratutako handiena. Datu horrek iradokitzen du zenbait eragilek erosketak aurreratu zituztela zergen igoeraren aurreikuspenaren ondorioz, prezioen garestitzea saihesteko. Hala ere, termino errealetan, inportazioen hazkundera %1,4koa izan zen, eta esportazioena, Estatuko gainerako lurraldeetara zein atzerrira egindakoak, %0,8koa, aurreko hiruhilekoaren aurrerapen nabarmenaren ondoren moteltze bat erakutsiz. Esportazioen guztizko bolumena 17.942 milioi eurokoa izan zen.

Esportazio horien zati handi bat ondasunei dagokie (zerbitzurik gabe), atzerrira soilik bideratutakoak eta Aduana Zuzendaritzak mugan zenbatzen dituenak. Guztira, bigarren hiruhilekoan atzerrira egindako ondasunen salmentek 8.071 milioi euroko balioa kontabilizatu zuten, urte arteko %2,7ko jaitsierarekin. Atzerakada horrek lehen hiruhilekoan izandako %1,6ko hazkundera eten zuen, eta azken aldietan kanpo merkataritzak erakutsitako aldakortasuna berretsi zuen. Energia produktuen esportazioek, guztizkoaren zati txiki bat osatzen duten arren, jaitsiera nabarmena izan zuten berriro (-%33,6), eta energiaz bestelako produktuak, kanpo merkataritzaren zatirik handiena osatzen dutenak, ia egonkor mantendu ziren (-%0,3). Bestalde, atzeritik ekarritako ondasunen inportazioak 6.711 milioi eurokoak izan ziren, eta jaitsiera askoz nabarmenagoa izan zuten, %8,2koa.

Esportazio ez-energetikoen artean, garraio materialaren portaera ona nabarmendu zen, %18,1 hazi baitzen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean eta 2.554,8 milioi eurora iritsi baitzen. Talde horrek lau hiruhilekotan jarraian behera egin zuen 2024an, eta 2025eko lehen hiruhilekoan hasi zen suspertzen, eta egungo datuak, oraingoz behintzat, goranzko joera hori sendotu dela berresten du. Ibilgailu automobilen eta trenbide osagaien esportazioen erritmo onak eragin zuen bultzada, eta berriro ere pisua hartu zuten euskal esportazio egituran, automobilgintzaren sektoreko ziurgabetasunak markatutako urte baten ondoren. Nekazaritza produktuek %9,3ko igoera izan zuten, eta produktu kimikoek, berriz, %11,4koa; hala, hautsi egin zen 2023. urtearen erdialdetik aurrera izandako erorikoen segida.

Aitzitik, egitura esportatzailean presentzia handia duten beste talde batzuek bilakaera negatiboa izan zuten. Makinek eta aparatuek, 2023ko erdialdetik aurrera ibilbide sendoa erakusten zutenak, %6,5 egin zuten behera, zenbait helmugetako industria inbertsioaren moteltzearen isla. Metal arruntek susperraldia hasi zuten lehen hiruhilekoan, baina %9,9 egin zuten atzera. Plastikoaren eta kautxuaren sektoreak (-%22,4) eta paperarenak (-%17,6), berriz, duela urtebete baino gehiago hasitako beheranzko joera luzatu zuten, prezioak doitzeko eta manufaktura jarduera txikiagoa egiteko testuinguruan.

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	0,1	-5,1	0,7	-5,5	1,6	-2,7	8.070.832
Energia	-31,0	-1,4	23,8	-57,3	-47,7	-33,6	402.714
Ez-energetikoak	3,6	-5,4	-0,7	-0,2	5,1	-0,3	7.668.118
Nekazaritzakoak	2,5	-21,2	-17,3	-1,2	13,0	9,3	483.223
Kimikoak	-11,1	-7,1	-2,1	-15,0	-20,3	11,4	253.616
Plastikoak eta kautxua	6,4	-19,9	-24,9	-18,1	-9,0	-22,4	373.035
Papera	-17,2	4,1	26,5	1,3	-3,6	-17,6	175.566
Metal arruntak	-13,2	-2,9	6,7	10,9	3,7	-9,9	1.623.855
Makinak eta aparatuak	8,6	11,6	14,2	15,6	10,7	-6,5	1.690.537
Garraio materiala	18,9	-10,7	-8,9	-7,6	7,0	18,1	2.554.790
Gainontzekoak	3,3	-9,5	0,4	-18,2	10,8	5,3	407.270

Iturria: Eustat.

Helmuga geografikoaren arabera, esportazioek bilakaera desorekatua izan zuten, merkatu garatuetan atzerakada nabarmena izanik. 2025eko bigarren hiruhilekoan, ELGAko herrialdeetara zuzendutako euskal esportazioek 6.588 milioi euroko balioa izan zuten, urte arteko %6,7ko jaitsierarekin. Atzerakada horrek azken hiruhilekoetan ekonomia aurreratuek erakutsitako ahultasuna berretsi zuen, eta garapen bidean dauden herrialdeen dinamismoarekin kontrastatu zuen, horien erosketek %20,1eko hazkunde nabarmena izan baitzuten, guztira 1.483 milioi euroraino. Erritmo desberdintasun horren aurrean, herrialde garatuak izan ziren oraindik ere euskal produktuen helmuga nagusia, esportazio guztien %81,6 biltzen baitzituzten hiruhilekoan.

Talde horren barruan, euroaren eremuak merkatu nagusia izaten jarraitu zuen, esportazioen %52,8 metatuz. 2025eko bigarren hiruhilekoan, industria talde nagusien portaera desberdina izan zen, eta pisu handieneko sektoreetan jaitsierak izan ziren nagusi. Garraio materialaren esportazioak gutzitzkoaren ia herena dira, %12,6 hazi ziren eta dinamismoa eman zioten multzoari. Nekazaritzako produktuek ere bilakaera positiboa izan zuten, %13,4ko hazkundearekin. Hala ere, aurrerapen horiek ez zuten lortu funtsezko beste talde batzuetan izandako atzerakadak konpentsatzea. Metal arruntak salmentak, garrantzian bigarren taldea, %8,2 jaitsi ziren; makina eta aparatuenak, berriz, %4,2 jaitsi ziren, industria jardueraren bultzadaren galera islatuz. Plastikoen eta kautxuak ere murrizketa nabarmena izan zuten, %29,0koa, eta paperak %14,6 egin zuen behera. Portaera horren ondorioz, euroaren eremura bideratutako esportazioak %5,2 murriztu ziren.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	0,1	-5,1	0,7	-5,5	1,6	-2,7	8.070.832
ELGA	1,2	-6,4	-0,6	-8,5	-2,0	-6,7	6.588.082
Eurogunea	-3,6	-6,5	1,0	-8,4	-3,7	-5,2	4.216.921
Alemania	2,9	-13,0	-14,2	-0,7	1,0	3,3	1.210.250
Frantzia	-2,3	-0,4	7,3	-10,2	-10,0	-10,3	1.145.523
Italia	4,9	-1,5	-8,1	-7,9	-0,2	-13,2	462.622
Erresuma Batua	2,9	6,0	9,9	6,6	-2,7	-20,3	521.138
AEB	20,1	-27,2	-17,6	-41,4	-9,5	-7,6	494.239
ELGAtik kanpokoak	-6,1	2,3	7,6	11,8	24,0	20,1	1.482.750

Iturria: Eustat.

Alemania izan zen euskal esportazioen helburu nagusia 2025eko bigarren hiruhilekoan, 1.210,3 milioi euroko salmentak izan baitzituen eta urte arteko %3,3ko hazkundera izan baitzuen. Euroguneko ekonomia handien artean, hiruhilekoa positiboan itxi zuen bakarra izan zen. Garraio materiala izan zen aurrerapen handiena izan zuena, %16,0ko hazkundearekin, nekazaritza produktuen eta erregai mineralen portaera onarekin batera. Aldiz, metal arruntek eta makineriak, esportazio egituran pisu nabarmena dutenak, %14,6ko eta %7,6ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren, eta plastikoei eta kautxuak atzerakada nabarmenagoa izan zuten, %35,6koa.

EAEko esportazioen bigarren helmuga Frantzia izan zen, 1.145,5 milioi euroko salmentekin. Urte arteko jaitsiera %10,3koa izan zen, eta horrek 2024aren amaieran hasitako beheranzko joera luzatu zuen. Uzkurdura orokorra izan zen, batez ere erregai mineraletan, %40,9 jaitsi baitziren. Metal arruntek, makineriak eta garraio materialak ere negatiboan itxi zuten hiruhilekoa, eta horrek erakusten du merkatu horretako eskariaren ahultze iraunkorra.

Italiara egindako esportazioek %13,2ko jaitsiera izan zuten. Salbuespen bakarra garraio materiala izan zen, %32,7ko hazkundearekin, urteko lehen hiruhilekoan hasitako suspertzea sendotuz. Hala ere, aurrerapen horrek ez zuen gainerako partiden atzerakada konpentsatu. Metal arruntek %31,6ko jaitsiera izan zuten, makinek %6,0, eta produktu kimikoei zein plastikoei eta kautxuzkoek %45etik gorako atzerakada izan zuten.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuko esportazioek %20,3ko jaitsiera izan zuten. Metal arruntek %14,3ko atzerakada izan zuten, eta makinak eta tresnak berriro jaitsieran sartu ziren, bost hiruhilekoz hazkundean egon ondoren. Garraio materialak eta produktu kimikoek hazkunde positiboa izan zuten, baina ez nahikoa gainerakoen jaitsiera konpentsatzeko.

Estatu Batuetara egindako esportazioen bilakaera ere ez zen aldekoa izan. Makinak, aurretik bilakaera oso positiboa erakutsi zutenak, %8,3 jaitsi ziren, eta metal arruntek zein garraio materialak ere hiruhilekoa negatiboan itxi zuten. Hirurak merkatu estatubatuarerrako salmenten %73,1 biltzen dute, eta papera, kautxua edo produktu mineralen esportazioen hazkundeak ez zuen %7,6ko jaitsiera orokorra saihestu.

Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeetara bideratutako esportazioek dinamismo nabarmena erakutsi zuten. Ekonomia talde horri egindako salmentak 1.482,8 milioi eurokoak izan ziren, serie historiko osoko erregistrorik handiena, eta esportatutako guztizkoaren %18,4 izan ziren. Bazkide komertzial tradizionalak eskari txikiagoa duten testuinguru batean, badirudi euskal enpresak merkatu berrietan presentzia areagotzen ari direla. Garraio materiala izan zen liderra aurrerapen horretan, %47,3ko hazkundearekin. Ondoren, makina eta aparatuen eta metal arrunten eta horien manufakturen salmentak izan ziren, nahiz eta hazkundeak neurritsuagoak izan. Balantze orokor hori ona izan arren, Txinako merkatuak profil uzkurra erakutsi zuen berriro, %23,8ko jaitsierarekin bigarren hiruhilekoko esportazioetan. Atzerakada kapitulu nagusietan kontzentratu zen, batez ere garraio materialean eta metal arruntetan, zeinak batera esportatutako guztizkoaren %80 baino gehiago baitira. Produktu kimikoek bakarrik lortu zuten aurrerapen esanguratsua (%102,4), baina haien pisuak txikia izaten jarraitu zuen.

Guztizko ondasunen inportazioei dagokienez, %8,2 murriztu ziren urteko bigarren hiruhilekoan, ondoz ondoko lau hiruhilekoko hazkundearen ondoren. Atzerakadaren arrazoi nagusia produktu energetikoen beherakada handia da (-%35,8), balioaren heren bat baino gehiago galdu baitzuten, bai eta metal arrunten (-%6,8) eta produktu kimikoen (-%14,2) erosketen beherakada ere. Paperaren eta plastikoaren sektoreari lotutako inportazioetan ere uzkurdura erregistratu zen, baina ez hain handia. Aitzitik, ekipamendu ondasunen inportazioek bilakaera egonkor eta sendoa izan zuten, %13,0ko hazkundearekin, makineriaren erosketak (%11,6) eta garraio materialak (%16,1) bultzatuta. Horri guztiari esker, inportazio ez-energetikoen multzoak %2,9ko gorakadarekin itxi zuen hiruhilekoa.

Eremu geografikoen arabera, herrialde garatuetatik egindako inportazioak egonkor mantendu ziren (%0,9ko hazkunde arina), eta garapen bidean dauden herrialdeetatik egindako erosketek jaitsiera nabarmena izan zuten (-%23,7). ELGAren barruan, Alemaniak dinamismo nabarmena erakutsi zuen, Euskadira egindako salmentak %11,8 handituz, ekipamendurako ondasunen

erosketek bultzatuta, bereziki makineria mekaniko eta elektrikoan, eta automobilgintzan. Estatu Batuetatik (%22,1) eta Erresuma Batutik (%46,2) egindako inportazioek ere aurrerapenak izan zituzten, bi kasuetan erregai mineralen hornidurarekin lotuta. Erresuma Batuaren kasuan, lehen hiruhilekoan ez zen energiari inportatu herrialde horretatik, eta bigarrean, erosketen %9,4 bertatik etorri zen. Estatu Batuak, berriz, %11,8tik %21,1era igaro zen, energia hornitzaile nagusi bihurtuz, Kuwaiten aurretik.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	-9,2	0,9	2,6	7,4	5,9	-8,2	6.710.827
ELGA	-3,2	-1,9	1,5	11,6	0,3	0,9	4.649.392
Eurogunea	0,3	-0,9	6,4	2,5	6,0	2,0	3.112.453
Alemania	5,7	1,1	10,8	7,7	12,3	11,8	1.145.082
Frantzia	-17,2	0,2	13,3	-0,3	7,3	0,2	567.703
Italia	-1,1	-1,9	-9,9	4,4	-8,5	-4,7	324.234
Erresuma Batua	-41,5	13,5	58,4	7,0	-9,9	46,2	273.717
AEB	-15,9	-13,5	-38,7	18,0	-27,9	22,1	400.198
ELGAtik kanpokoak	20,0	7,0	5,0	-0,6	19,0	-23,7	2.061.435

Iturria: Eustat.

Hiruhilekoko merkataritza saldoa 1.360 milioi eurokoa izan zen, Euskadiren aldekoa. Emaitza hori produktu ez-energetikoen trukeetan sortutako superabitak azaltzen du. Superabita 2.233 milioikoa izan zen, eta defizit energetikoa konpentsatzea ahalbidetu zuen, 873 milioira murriztu baitzen. Ohi bezala, Euskadi superabita izan zuen herrialde garatuekin izandako harremanetan (1.939 milioi euro), eta defizita garapen bidean zeuden herrialdeekin (-579 milioi euro). Herrialdeka, Frantziarekiko superabit handia nabarmendu zen (578 milioi euro), Alemaniarekiko merkataritzarekin dagoen berdintasunarekin kontrastatu zuena (65 milioi). Estaldura osoaren tasa, azkenik, %120,3koa izan zen, eta produktu ez-energetikoena, berriz, %141,1ekoa.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen bilakaera aztertzeko aukera ematen duten adierazleen artean, BPGren deflaktoreak ibilbide egonkorra erakutsi zuen, aurtengo lehen hiruhilekoan gorakada txiki batekin. Zehazki, 2024ko laugarren hiruhilekoko %2,3tik 2025eko lehen hiruhilekoko %2,5era igaro zen, eta gero bigarren hiruhileko honetan %2,4ra. Beraz, % 2,0ko helburutik gertuago dauden mailetan egonkortu da, iazko bigarren hiruhilekora arte lortzen ari ziren %3,0tik gorako balioak atzean utzita. 2025eko bigarren hiruhilekoan ikusitako moderazio orokorraren esparruan, kontsumoaren deflaktorearen bilakaera nabarmendu zen, aurreko hiruhilekoetan beheranzko erresistentzia erakutsi ondoren murrizten hasi baitzen. Zehazki, 2024ko azken hiruhilekoan %3,2 izatetik 2025eko bigarren hiruhilekoan %2,6 izatera igaro zen, eta pixkanaka joera orokorrarekin lerrokatu zen. Moteltze orokor hori kontsumo pribatuan eta publikoan islatu zen, nahiz eta lehenengoak nahiko maila altuagoa mantendu.

Euskadiko inflazioaren bilakaera beheranzko ibilbideak markatu zuen 2024ko erdialdetik, urte horretako maiatzean %3,9ko maximora iritsi ondoren. Une horretatik aurrera, urte arteko tasak moteltze jarraitua izan zuen, eta 2025eko maiatzean iritsi zen tasa txikienera (%2,4). Hurrengo hilabeteetan pixka bat igo zen, uztailean %3,0ra iritsi arte eta abuztua %2,8an amaitu zuen.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2023	2024	2025			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,2	2,6	2,8	2,8
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,6	2,7	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	2,6	1,8	1,8	0,3
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,2	1,2	0,6	0,1
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,2	3,5	3,4	1,7
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	6,5	2,4	4,9	0,7
- Landu gabeko elikagaiak (%6,4)	7,3	4,0	5,6	7,6	6,3	0,4
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	7,3	-1,1	3,9	0,3

Iturria: INE.

Portaera hori, neurri handi batean, 2025eko lehen hiruhilekoan inflazioa bultzatu zuten energia-eta zerga faktoreen konbinazioari dagokio. Lehenik eta behin, urte hasieran erregaien garestitzeak, produktu energetikoen BEZaren murrizketa bezalako zenbait neurri fiskal kentzearekin batera, prezioak igo zituen aldi baterako. Hala ere, presio hori desagertzen joan zen apirilean eta maiatzean, Brent petrolio gordinaren prezioaren jaitsiera esanguratsuekin batera, urtarrilean upeleko 76,76 dolar izatetik maiatzean 63,90 dolar izatera igaro baitzen. Hori dela eta, erregaiek udaberrian izan zuten eragin moteltzailea nahikoa izan zen igoera fiskalen eragina partzialki konpentsatzeko, eta inflazio orokorra %2,5 inguruko mailetan mantentzeko bigarren hiruhilekoaren zati handi batean. Ondoren, ekainean, Brent upelaren prezioak gora egin zuen berriro, 80 dolar ingurura iritsi arte, Israelen eta Iranen arteko gatazkak bultzatuta. Beranduago, petrolioaren prezioa berriro zertxobait moteldu zen uztailean (72,53 dolar) eta abuztuan (68,2 dolar). Petrolioaren prezioaren bilakaera horrek, elektrizitatearen prezioaren igoera iraunkorrekin batera, uztailean inflazioak izandako igoera (%3,0) eta abuztuan izandako bilakaera (%2,8) azal ditzake.

Eurogunean, 2025eko lehen seiuhilekoan, inflazioa %1,9 eta %2,5 arteko tarte estuan mantendu zen, eta horrek inflazio presioen egonkortzea bat iradokitzen du. Portaera horrek faktore kontrajarrien eragina izan zuen, alde batetik, zergetan egindako aldaketek eragindako efektuen iraunkortasunarena, hala nola krisi energetikoan aplikatutako zerga arintzerako neurri batzuen amaierarena; eta, bestetik, petrolioaren prezioek maila apaletan eutsi izanak eragindako garraio eta ekoizpen kostuen moteltzearena. Ekaina eta abuztua bitartean, inflazioa egonkor mantendu zen urte arteko %2,0an, maila nahiko jasangarrian eta Europako Banku Zentralaren helburuetara hurbilduz. Testuinguru horretan, irailean Europako Banku Zentralak interes tasak mantentzea erabaki du, oraingoz, murrizketa gehiago egitea baztertuz. Hala ere, ingurune geopolitikoak arrisku faktore izaten jarraitzen du, batez ere energia prezioen bilakaerari dagokionez.

Euskadiko azpiko inflazioari dagokionez, bigarren hiruhilekoan bere horretan jarraitu zuen, %2,7 inguruan, eta horrek lehen hiruhilekoan hasitako egonkortzea berrestu zuen. Uztailean eta abuztuan %2,5 era jaitsi zen, inflazio orokorraren azpitik. Egonkortasun hori, neurri batean, elikagai elaboratuen prezioak moteltzen jarraitzearen eta lan kostuetan presio esanguratsurik ez egotearen ondorio da. Halaber, industria ondasunek eta zerbitzuek bilakaera nahiko laua izan zuten, eta azpiko inflazioari eusten lagundu zuten. Oro har, datuek desinflazio prozesua sendotzen dela adierazten dute, baina nazioarteko testuingurutik eratorritako zenbait arriskuk bere horretan diraute.

Hondar inflazioa, maiatzean bere baliorik bajeunean egon ondoren (%1,8), bigarren hiruhilekoan %2,4ra igo zen. Gero, uztailean, %5,6ra iritsi zen eta abuztuan pixka bat apaldu zen (%4,9). Bilakaera horrek landu gabeko elikagaien inflazio presio iraunkorra islatzen du; izan ere, tasa altuei eutsi zieten ekainean %8,4ra iritsiz, gero abuztuan berriro moteltzeko (%6,3). Osagai energetikoak antzeko joera erakutsi zuen, baina portaera neurritsuagoarekin, bigarren

hiruhilekoan, urte arteko % 1,1eko beherakada izan zuen, baina uztaila eta abuztuan , aldiz %3,9ko igoera. Erregaiek, aldiz, beheranzko joerarekin jarraitu zuten (-%2,9 abuztuan). gainerako produktu energetikoek prezio igoerak eragiten zituzten bitartean. Hau da, erregaien moteltzea nahikoa izan zen gasaren eta elektrizitatearen prezioak gora bultzatu zituzten BEZaren igoera eta beste faktore batzuei aurre egiteko. Landu gabeko elikagaien eta energiaren prezioen dinamismo horrek udaberrian ikusitako moteltze joera irauli zuen, hondar inflazioa berriro ere azpikoaren gainetik jarritz eta osagaien aldakortasuna agerian utziz egungo testuinguru ekonomikoan.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	3,6	3,1	2,5	2,9	3,2	2,6	2,8
Janariak eta alkohol gabeko edariak	11,1	4,5	3,7	3,2	3,4	3,4	2,8
Edari alkoholodunak eta tabakoa	7,0	4,3	4,1	5,2	3,9	3,9	4,6
Jantziak eta oinetakoak	2,0	1,0	1,1	0,8	1,7	0,6	0,1
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-12,0	3,7	3,5	7,1	8,8	4,3	6,3
Etxeko hornidura	6,0	1,5	1,3	1,3	1,4	1,7	1,5
Medikuntza	2,3	2,7	2,8	2,6	2,2	2,1	2,1
Garraioa	0,3	0,9	-0,8	-0,8	0,0	-1,0	1,1
Komunikazioak	3,2	0,1	-0,2	0,1	1,8	2,1	0,9
Aisia eta kultura	4,6	2,4	1,1	3,1	1,1	1,6	0,7
Irakaskuntza	1,9	2,3	2,2	2,6	2,3	2,4	2,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	6,2	4,3	3,9	3,7	4,2	4,1	4,1
Besteak	5,4	3,7	3,5	3,6	4,1	4,1	3,4

Iturria: INE.

Taldeka, etxebizitzak, urak, elektrizitateak eta gasak jarraitu zuten inflazio handiena izaten, bigarren hiruhilekoan %4,3ko igoera izatetik abuztuan %6,3koa izatera igaro baitzen, BEZ elektrikoaren igoerak eta gasaren garestitzeak bultzatuta. Zerbitzuek ere beheranzko erresistentzia erakutsi zuten berriro, bai jatetxeek eta hotelek (%4,1), bai beste ondasun eta zerbitzuek (%3,4) prezioak garestitu baitzituzten abuztuan. Bestalde, edari alkoholodunek eta tabakoak %3,9ko garestitze esanguratsua izan zuten bigarren hiruhilekoan, eta %4,6koa abuztuan.

Janariak eta alkoholik gabeko edariak %3,4 igo ziren bigarren hiruhilekoan, baina inflazio orokorrarekin lerrokatu ziren abuztuan. Garraioa, erregaien prezioaren jaitsiera txikiagoak eta hegazkinekiko bidaien udako garestitzeak eraginda, bigarren hiruhilekoan %1,0 merkatzetik abuztuan %1,1 garestitzera igaro zen.

Aitzitik, KPIa osatzen duten produktu-multzo batzuek euste zantzu argiak erakutsi zituzten abuztuan. Kasu nabarmenenak arropa eta oinetakoak (%0,1), aisialdia eta kultura (%0,7) eta komunikazioak (%0,9) izan ziren.

Industria Prezioen Indizeak (IPRI) bi urtez jarraian behera egin ondoren, 2024aren amaieran joera aldatu zuen. Urte arteko tasak positiboak izan ziren abenduan (%1,6) eta 2025eko lehen hilabeteetan joera sendotu egin zen, urtarrileko maximoarekin (%2,1). Hala ere, susperraldi hori irregularra izan zen, pixkanaka, motelduz joan baitzen, uztailen indizeak behera egin zuen arte (-%0,6). Abuztuan, berriz hazi egin zen %0,6. Bilakaera horrek prezioen ingurune egonkorragoa erakusten du, nahiz eta produktu multzoen artean portaera desberdinak egon diren.

2025eko bigarren hiruhilekoan, manufaktura industriak bilakaera oso mugatua izan zuen: apirilean atzera egin zuen eta maiatzean eta ekainean gorakada txiki bat izan zuen. Taldeka, produktu informatikoei eta farmazeutikoei beren dinamismoagatik nabarmentzen jarraitu zuten. Abuztuan urte arteko %14,8ko eta %10,2ko hazkundeak izanez. Talde bi hauek maiatzaz geroztik prezio hazkunde sendoenak eduki dituzte. Material eta ekipo elektrikoan ere abuztuan %7,6ko hazkundera izan zen ziurrenik trantsizio energetikoari eta digitalizazioari lotutako sektoreetan eskari handiagoa izan zelako. Aitzitik, koke-fabriken eta petrolioaren finitzearen adarrak ahultasuna erakusten jarraitu zuen, %5,5eko beherakadarekin, aurreko hilabeteetan baino beherakada txikiagoa izan bazen ere. Ziurrenik, portaera hori petrolio gordinaren nazioarteko prezioen apaltzearekin eta ekoizpen ahalmenaren doikuntzekin lotuta dago.

Energia elektriko, gasa eta lurrunaren prezioak egonkortu egin dira, eta urte arteko aldaketarik ia ez da izan abuztuan (-%0,2). Beraz, badirudi amaiera eman zaiola urtarrilean hasitako igoera handien zikloari. Egonkortze hori handizkako prezioen normalizazioaren eta BEZ murriztua kentzearen efektuak jada hain handiak ez izatearen ondorio da.

Hitzarmen kolektiboak dagokienez, 2025eko ekaina amaitzean, Euskadiko langileen %56,9k indarrean zeuden lan hitzarmenak zituzten, %38,6k akordioak luzapen egoeran zituzten eta %4,5 bertan behera utzitako hitzarmenak zituzten. Aldi horretan, 136 hitzarmen berri sinatu ziren, 83.000 pertsonari baino gehiagori eragiten dietenak, eta 367.581 langile daude gaur egun lan akordioa eguneratuekin. Gainera, bigarren hiruhilekoan, EAEko hitzarmenek KPIa baino soldata-igoera handiagoak ezarri zituzten; %3,2koa indarrean zeuden hitzarmenetan eta %3,4koa urtean

zehir sinatutakoetan, hiruhilekoan jasotako inflazioa 2,6koa izan zen bitartean . Horri esker, erosteko ahalmen apur bat berreskuratu da.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak					
	2021	2022	2023	2024	2025(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,2	4,1	4,2	3,4	3,2
- Urtean zehar sinatutakoak	1,1	4,1	4,7	3,6	3,4
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,0	3,9	4,3	3,4	3,6
- Enpresako hitzarmenak	1,9	4,7	4,1	3,2	2,5

(*)2025eko ekaina arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, lan kostuei dagokienez, hauek goranzko joera izan zuten 2024ko amaierarekin eta 2025eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. 2025eko lehen hiruhilekoan, langile bakoitzeko lan-kostu osoak urte arteko %3,8ko hazkundera izan zuen, eta inflazioa baino 0,6 puntu handiagoa izan zen. Bigarren hiruhilekoan, aldiz, hazkundera nabarmenagoa izan zen, urte arteko %4,1eko hazkunderarekin, inflazio tasa baino 1,5 puntu gehiago. Lan kostuen osagaien artean, beste behin ere, beste kostuak izan ziren hazkunderik handiena izan zuten osagaiak, urte arteko % 6,0ko aldakuntzarekin, MEIren (Belaunaldien arteko ekitate mekanismoa) kotizazioaren gorakadak eta 2025ean soldata handienei aplikatutako elkartasun kotizazio berriak bultzatuta.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
Lan kostu guztiak langileko	4,5	2,3	1,9	3,6	1,8	3,8	4,1
- Soldata kostua guztira	3,7	2,3	2,5	3,7	1,2	3,4	3,4
- Bestelako kostuak	6,9	2,5	0,2	3,3	3,5	5,0	6,0
Lan kostu guztiak orduko	5,0	2,7	-0,8	3,5	1,9	1,6	7,8
- Soldata kostua guztira	4,2	2,6	-0,2	3,6	1,3	1,1	7,1
- Bestelako kostuak	7,3	2,9	-2,5	3,3	3,8	2,8	9,8
Adostutako lan orduak	0,1	-0,4	-0,3	-0,5	-0,5	0,2	0,4
Benetan lan egindako orduak	-0,5	-0,3	2,8	0,1	-0,1	2,2	-3,5

Iturria: INE.

Azterketa lan egindako ordu bakoitzeko egiten bada, kostuaren igoera are nabarmenagoa da (% 7,8), benetan lan egindako orduak %3,5 jaitsi zirelako, nahiz eta hitzartutako orduak egonkor jarraitu, (%0,4 bakarrik igo baitziren). Nolanahi ere, bigarren hiruhileko horretan lan kostuak inflazio orokorraren gainetik hazi ziren.

Arlo publikoa

2025eko lehenengo zortzi hilabeteetan, 12.729 milioi euro bildu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), hau da, %9,7 gehiago, 2024ko aldi beraren aldean. Hazkunde horren arrazoia, neurri handi batean, barne eskariaren indarra eta lan merkatuaren dinamismoa dira. Azpimarratzekoa da bilketa osoaren hazkundea zeharkako zergetan oinarritu dela gehien, horien hazkundeari egindako ekarpena zerga zuzenena baino handiagoa izan baita. Bi tasek igoerak izan badituzte ere, arau aldaketen eragina nabarmenagoa izan da zeharkako zergetan, bereziki Balio Erantsiaren Zergan (BEZ) eta zerga berezietan. Eragin arauemaile hori, gainera, kontsumo pribatuaren dinamismoak indartu du, zerga horien zerga oinarria handitu baitu.

Zerga zuzenen bidezko bilketa %7,7 hazi zen, 6.820 milioi euroraino. PFEZ izan zen hazkundearen buru, %10,7ko igoerarekin, lan-etekinen gaineko atxikipenen hazkundeak bultzatuta, Euskadin enpleguaren hobekuntzarekin bat etorriz. Halaber, hazkunde nabarmenak izan ziren Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan (%28,2), Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan (%34,3) eta Ondarearen gaineko Zergan (%17,9), finantza eta ondare aktiboen merkatuan izandako jarduera handiagoarekin lotu daitezkeenak, interes-tasa baxuagoen testuinguruan. Aitzitik, Sozietateen gaineko Zergak %9,2ko beherakada izan zuen, 2024ko ezohiko emaitzen ondoren enpresa etekinen normalizazioari egotz zekiokkeen. Atzerapen hori Euskadiko industria dinamismo txikiagoko testuinguruan kokatzen da.

Zeharkako zergak %12,4 hazi ziren, 5.837 milioi euroraino. Nabarmenezkoa da BEZa, %11,9 igo baitzen. Gorakada hori 2025eko urtariletik elektrizitatearen eta antzekoen produktuei aplikatutako tasa murriztuen amaierarekin eta kontsumoaren indar iraunkorrarekin lotzen da. Era berean, higiezin merkatuaren eta eraikuntzaren sektorearen dinamismoak gorakada handiak eragin ditu Ondare Eskualdaketen gaineko zergaren (%30,8) eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren (%14,0) diru bilketan, Euskadiko eta inguruko jardueraren gorakadarekin bat etorriz.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abuztua)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2024	2025	% Var. 25/24
PFEZ	4.505.269	4.987.005	10,7
Sozietateen gaineko zerga	1.409.711	1.280.273	(9,2)
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	84.821	108.778	28,2
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	104.994	140.970	34,3
Ondarearen gaineko zerga	193.693	228.281	17,9
Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga	29.496	29.788	1,0
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	4.225	31.597	647,8
FFEE Interes eta komisioen Marjinaren gaineko zerga	0	13.202	-
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	6.332.209	6.819.895	7,7
BEZ	4.046.628	4.527.180	11,9
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	122.619	160.354	30,8
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	26.928	30.700	14,0
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	20.381	16.396	(19,6)
Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga bereziak	786.740	876.738	11,4
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	21.820	43.953	101,4
Aseguru sarien gaineko zerga	77.416	82.614	6,7
Joko jardueren gaineko zergak	5.335	6.173	15,7
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	6.478	7.272	12,3
Finantza-transakzioen gaineko zerga	57.601	61.651	7,0
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	9.705	11.228	15,7
Zabortegetan hondakinak uztearen gaineko zerga	11.393	12.306	8,0
Iraungitako zergak	(307)	(31)	89,7
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.192.738	5.836.556	12,4
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	77.403	72.628	(6,2)
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	11.602.350	12.729.080	9,7

Iturria: Foru aldundiak.

Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga berezien artean, hidrokarburoen eta tabako lanen gaineko zergen bilketak %4,2 eta %8,7ko igoerak izan zituzten, hurrenez hurren. Bestalde, nabarmentzekoak dira Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia (%101,4) eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren gaineko Zerga (%647,8) izandako gorakada handiak, zerga tasen goranzko berrikuspenaren eta aldi baterako salbuespenen amaieraren ondorioz. Finantza transakzioen gaineko Zergak ere bilakaera positiboa izan zuen (%7,0), jarduera finantzario handiagoaren eta nazioarteko hegazkortasun txikiagoa duten aktiboetara inbertsioen

birbideratzearen testuinguruan. Azkenik, tasen eta bestelako kontzeptuen bidezko sarrerak %6,2 jaitsi ziren.

Arlo finantzarioa

2025eko azken hilabeteetan, nazioarteko finantza ingurunean moneta politika pixkanaka erlaxatu egin da, inflazio presioak moteldu egin dira eta euroak nabarmen egin du gora. Testuinguru horrek zorraren merkatuen egonkortasuna erraztu du, 10 urterako bonu subiranoetan jasotako errentagarritasunekin eta arrisku primekin, gorabehera handirik gabe. Aldi berean, burtsa merkatuek aurrerapen orokorrak izan dituzte, itxaropen ekonomikoak hobetzearen eta banku zentralak hain murriztaileak ez diren posizioetara aldatzearen ondorioz.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2023	2024	2025					
			Apir.	Mai.	Ekai.	Uzt.	Abuzt.	Iraila
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zent. (*)	4,0	3,0	2,25	2,25	2,0	2,0	2,0	2,0
Erreserba Federala	5,25-5,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,0-4,25
Japoniako Bankua	-0,10	0,25	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
Ingalaterrako Bankua	5,25	4,75	4,5	4,25	4,25	4,25	4,0	4,0
Txinako Banku Popular	3,45	3,10	3,10	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0
Brasilgo Banku Zentrala	11,75	12,25	14,25	14,75	15,0	15,0	15,0	15,0
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	97	70	67	59	64	58	60	55
Grezia	105	84	87	74	69	70	71	70
Erresuma Batua	76	48	56	48	47	43	45	42
Italia	168	116	112	97	90	84	90	85
AEB	184	219	173	189	164	166	151	143

(*) Gordailu tasa.
Iturria: Espainiako Bankua.

Uda hilabeteetan, banku zentral nagusiek udaberrian hasitako ibilbideari eutsi zioten, politika monetarioaren progresiboki lasaitzera bideratua. Eurogunean, Europako Banku Zentralak gordailutzeko erraztasunaren interesa %2,0an mantentzea erabaki zuen, eta APP berrinbertsio programaren amaiera berretsi zuen, finantza sistematik likidezia pixkanaka kentzea dakarrena, politika murriztaileago batetik urruntzeko norabidea indartuz. Erabaki hori inflazio orokorraren egonkortzean (%2,0 inguruan maitatzetik) eta azpiko inflazioaren moderazioan oinarritu zen, zerbitzuen eta industria ondasunen prezioetan lasaitze seinaleak agertuz.

Erreserba Federalak, bere aldetik, urrats bat gehiago eman zuen irailean, 2024ko abendutik lehen murrizketa ezarri, interes tasa erreferentziazko tarte $\%4,00-4,25$ ean kokatuz. Lan merkatuaren ahultzeak eta azpiko inflazioaren moderazioak bultzatu zuten norabide aldaketa hori, nahiz eta zerga hedapenaren eta dolarraren balio galeraren ondoriozko arriskuek bere horretan jarraitzen duten. Ingalaterrako Bankuak ere mugimendu horrekin bat egin zuen abuztuan interes tasak $\%4,0$ ra jaitsiz, prezioen eta jardueraren bilakaerarekin bat. Inflazio britainiarra uztailen $\%3,8$ ra igo zen, garraioaren eta zerbitzuen eraginez, baina urteko azken hiruhilekoan jaitsiera bideari ekingo diola espero da.

Japoniako Bankua, aldiz, gehiago lerrokatu zen EBZren jarrerarekin, eta aldi horretan aldaketarik ez egitea erabaki zuen, bere tasa ofiziala $\%0,5$ ean mantenduz. Inflazioak gora egin duen arren (uztailen $\%3,0$ tik gora kokatu zen), Japoniako banku zentralak urte hasieran hasitako joera sendotu du, diru-politika ultra-hedakorreko hamarkaden ondoren. Garapen bidean dauden ekonomietako banku zentral nagusiek ere aldaketa handirik gabeko moneta politikari eutsi zioten. Indiak izan ezik (25 pb), bere erreferentzia-tasa $\%5,5$ era jaitsi baitzuen, Brasilgo Bankuak $\%15,0$ an mantendu zuen bere interes tasa, eta Txinakoak $\%3,0$ an.

Banku zentral nagusiek moneta politikari buruz hartutako erabakiak zuzenean islatu ziren zor subiranoko merkatuetan, egonkortasun handiagoa eta errentagarritasun mailen doikuntza arinak ekarri. Europan, 10 urterako bonuak egonkor samar mantendu ziren, eta Espainiako bonuak $\%3,3$ ko errentagarritasunarekin itxi zuen iraila, ekaineko mailatik lau puntu eskasera. Bilakaera hori aurreikuspen makroekonomikoen hobekuntzak eta arrisku politikoen euspenak babestu zuten, nahiz eta hilaren bigarren erdian gorakada txiki bat izan zen erakundeen ziurgabetasunaren ondorioz.

Alemaniko bonuak, diferentzialen kalkulurako erreferentzia, ia aldaketarik gabe mantendu ziren ($\%2,72$ irailaren amaieran). Euroguneko periferian, goranzko joera hauteman zen: Portugalgo bonuak $\%2,99$ tik $\%3,15$ era igo ziren, eta Italiakoak $\%3,49$ tik $\%3,58$ ra, hilabete erdian $\%3,60$ gaindituz. Mugimendu horiek tentsio finantzario arinak erakutsi zituzten zenbait igorle periferikoetan, baina ez zuten euroguneko zor merkatuen egonkortasunaren pertzepzio orokorra aldatu.

Arrisku sariei dagokienez, Europako periferiako herrialde guztiak maila txikietan eta kontrolatuetan mantendu ziren azken hilabeteetan. Batez ere Portugal nabarmendu zen, herrialde periferikoen artean arrisku primarik txikiena erregistratu baitzuen, 43 pb-ko gutxienekoarekin. Espainiak ere bilakaera positiboa izan zuen, irailean Alemaniako zorrarekiko zuen diferentziala 56 pb izan baitzen, 2021eko martxotik ikusten ez zen maila, eta Italiakoa, berriz, 84 pb izan zen gutxienez.

Bestalde, Atlantikoaren beste aldean, bonu estatubatuarrak beheranzko bilakaera izan zuen. Ekainaren amaieran %4,36ra iritsi ondoren, errentagarritasunak behera egin zuen pixkanaka, iraila %4,15ean itxi arte. Zuzenketa hori Erreserba Federalak irailean egin zuen lehen tasa murrizketaren ondoren gertatu zen. Erabaki horrek merkatuentzat ustekabekoa izan zen eta adierazle makroekonomiko batzuen moderazioari eta inflazio itxaropenen hozteari erantzun zien.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2023	2024	2025					
			Apir.	Mai.	Ekaina	Uztai.	Abuzt.	Iraila
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,082	1,082	1,121	1,128	1,152	1,168	1,163	1,174
Yena/euro	151,9	163,8	161,7	163,2	166,7	171,5	171,8	174,4
Libera esterlina/euro	0,871	0,847	0,854	0,843	0,855	0,865	0,865	0,868
€ efektibo nomin.(%)	98,2	98,4	100,5	100,1	101,3	102,3	102,2	102,4
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	22,8	14,8	14,6	22,1	20,7	24,2	28,8	32,1
Eurostoxx-50	19,2	10,8	6,0	10,2	9,0	9,3	9,9	13,1
Dow Jones	13,7	12,9	-4,4	-0,6	3,6	3,7	7,1	8,9
Nikkei 225	28,2	19,2	-10,2	-4,8	1,5	2,9	7,1	13,7
Standard & Poors 500	24,2	23,3	-5,3	0,5	5,5	7,8	9,8	13,3

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte.

Iturria: Espainiako Bankua eta Expansión.

Dibisen merkatuan, euroak goranzko joera argia mantendu zuen nazioarteko dibisa nagusien aldean. Zehazki, dolarraren aurrean, moneta bakarra 1,128 dolarretik 1,174ra igo zen irailaren amaieran, hiru hilabetetan %4,1eko eta urtean zehar %5,1eko balio handitzea metatuz.

Bilakaera hori Estatu Batuetan irailean interes tasen murrizketak dolarra ahultzearekin eta Europar egonkortasun instituzional handiagoaren pertzepzioarekin lotu zen.

Japoniako yenari dagokionez, euroa ere nabarmen indartu zen. Ekainean euroko 166,7 yen izatetik irailean 174,4 izatera igaro zen kotizazioa, hau da, urtea hasi zenetik %9,2ko balioespena izan du. Mugimendu hori Japoniako Bankuak diru politika oso laxoari eustearen ondorio izan zen, tipoak aldaketarik gabe mantendu baitzituen, eta Japoniako ekonomiaren egiturazko ahultasunaren ondorio, oraindik ere susperraldiaren seinale argirik erakusten ez duena. Libera esterlinari dagokionez, euroak bilakaera kontrolatuagoa izan zuen. Maiatzean balioa apur bat galdu ondoren, moneta bakarrak posizioak berreskuratu zituen abuztuan eta irailean, eta hiruhilekoa 0,868 libera euroan itxi zen. Erresuma Batuko interes tasaren egonkortasunak eta inflazio datuen moderazioak mugimenduak mugatu zituzten gurutzaketa horretan, eta tarte estuan mantendu zen hiruhileko osoan.

Oro har, euroaren truke tasa efektibo nominala %102,4koa izan zen irailaren amaieran, eta horrek erakusten du oro har hobera egin duela dibisen saski haztatu baten aurrean. Europako Banku Zentralaren arabera, iritzi hori inportazio prezioetan eragina izaten hasi da, eta ondasun eta zerbitzu ez energetikoen inflazioa moteltzen lagundu du.

Burtsako merkatuei dagokienez, Europako burtsek goranzko bilakaera argia izan zuten, urte hasieran hasitako martxa ona sendotuz. Euroguneko itxaropen ekonomikoen hobekuntzak, EBZren moneta erlaxatzeak eta bankuen eta energiaren sektoreen dinamismoak azaltzen dute portaera hori. Xehetasun handiagoz, EuroStoxx 50ak 5.507 puntutan itxi zuen iraila (bere maximo historikotik gertu), urtea hasi zenetik %13,1eko errebalorizazio metatuarekin, eta Alemaniako DAXak 23.740 puntuak gainditu zituen, %19,3ko igoerarekin. Frantziako CAC 40k eta Britainia Handiko FTSE 100ek ere aurrerapen sendoak izan zituzten, baina moderatuagoak. Oro har, Europako merkatuak ingurune onuragarri batez baliatu ziren, eta horrek inbertsio konfiantza indartu zuen.

Testuinguru honetan, uda hilabeteetan IBEX-35en joera gorakorra sendotu zen, urte hasieratik aktibo mantendu dena. Irailaren amaieran, indizeak %32,1eko balio handitze metatua zuen, urtean zehar portaerarik onenetakoa erakutsiz Europako indizeen artean. Zehazki, irailean zehar IBEX-35ek 15.400 puntuak gainditu zituen, 2007ko maximo historikoetatik %3 baino gutxiagora kokatu zen.

Atlantikoaren beste aldean, Estatu Batuetako indize nagusiek ere irabazi nabarmenekin itxi zuten iraila. S&P 500 indizeak %13,3ko errebalorizazioa lortu zuen, eta Dow Jones indizeak, berriz, %8,9koa. Japonian, Nikkei 225ak suspertze indartsuenetako bat bizi zuen; izan ere,


maiatzean %4,8ko galerak izan ondoren, %13,7ko errebalorizazioarekin itxi zuen iraila, sektore teknologikoaren erreboteak eta moneta egonkortasunak bultzatuta, barne politikaren ziurgabetasuna gorabehera.

Garapen bidean dauden herrialdeen merkatuetan, portaera desberdina izan zen. Brasilgo IBOVESPAk %21,7ko irabaziak izan zituen, eta eskualdeko indize dinamikoenetako bat bihurtu zen, energia sektorearen jardun onak eta atzerriko kapitalaren sarrerak bultzatuta. Argentinako MERVALek, aldiz, %29,2ko galerak izan zituen, ziurgabetasun politiko handiak, inflazio presioak eta barne kontsumoaren ahultasunak eraginda.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milak)
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Uztailera arte, 12 hilabeterako Euriborrak beheranzko joerari eutsi zion, argi eta garbi, EBZk epe mugagabeko tasa jaitsierak gelditzea erabaki ondoren. Erabaki horren ondorioz, abuztuan lehen igoera erregistratu zen, eta irailean goranzko joera horri eutsi zitzaion. Zehazki, irailean pixka bat igo zen, abuztuan %2,114 izatetik %2,172 izatera. Igoera txiki baina garrantzitsuak izan dira, izan ere, lehen aldia da 2024. urtearen hasieratik bi goraldi jarraian izan dituela eta sei hilabeteen mailarik altuenera iritsi dela. Europako Banku Zentralak aurreikusitakoa baino lehen egindako etenaldiak eragin du igorpen hori, eta Euriborra %2,0tik jaisteko aukera geldiarazten du. Izan ere, analista nagusien eta erreferentzia panelen (Funcas, Caixabank, Bankinter) aurreikuspenen arabera, 12 hilabeterako Euriborra %2,1-2,2 ingurukoa izango litzateke 2025. urtearen amaieran.

Era berean, Espainiako Bankuak aurkeztutako *Etxeen eta enpresen finantza egoerari* buruzko azken txostenak erakusten du moneta erlaxazio hori eraginkortasunez eraman dela finantzaketa baldintzetara, bereziki hipoteka segmentura. Etxebizitza erosteko mailegu berrien batez besteko interes tasa %2,6ra jaitsi zen ekainean (baliorik txikiena 2022ko urritik), eta saldo biziaren batez besteko kostuak ere behera egiten jarraitu zuen. Gainera, kreditua eskuratzeko aukerak hobera egin duela ikusi da, batez besteko epemugak gora egin baitu, tasa finkoko hipoteken proportzio handiagoa baitago eta emakida estandarrak apur bat lasaitu baitira. Horrek guztiak familientzako finantza ingurune mesedegarriagoa sendotzen lagundu du.

Testuinguru horretan, EAEko hipoteka merkatuak suspertze bidea mantendu zuen 2025eko bigarren hiruhilekoan. INEren datuen arabera, apiriletik ekainera bitartean 5.946 etxebizitza hipoteka formalizatu ziren, urte arteko %19,3ko hazkundearekin. Zenbatekoaren batez bestekoa 167.800 eurora igo zen, aurreko urteko aldi beraren aldean %12,4 gehiago. Gorakada horrek finantzaketa baldintzen hobekuntza eta eskariaren dinamismo berria islatzen ditu, bereziki eremu metropolitarretan. Interes tasak urtean zehar jaitsiko direla espero izateak erosketen erabakiak aurreratzea bultzatu du.

Hipoteka merkatuaren portaera horrekin batera, tasa finkoko maileguak lehenetsi dira. Interes tasen beheranzko ingurune batean tasa aldakorrek hipotekak pisu handiagoa izatea espero daitekeen arren, kontrakoa gertatu da. 2025eko bigarren hiruhilekoan, hipoteka berrien %70 tasa finkoan formalizatu ziren; hau da, 14 puntu baino gehiago igo ziren 2024ko aldi berarekin alderatuta. Joera hori 2016an hasi zen sendotzen, eta hainbat faktoreren ondorio da: alde batetik, finantza erakundeek beherapen esanguratsuak aplikatu dituzte tasa finkoetan eta lehiakorragoak bihurtu dira, baita Euriborraren jaitsiera egoeretan ere; bestetik, mailegu hartzaileek gero eta gehiago baloratzen dute hileko kuoten egonkortasuna eta interes tasetan etorkizunean izan daitezkeen gorakaden aurreko babesa.

2025eko bigarren hiruhilekoan hipoteka merkatuan ikusitako dinamismoak bere isla izan zuen Euskadiko kreditu pribatuaren bilakaeran. Hamar hiruhilekotan jarraian urte artean behera egin ondoren, familiei eta enpresei emandako kredituak tasa positiboak izan zituen berriro, %1,5eko hazkundearekin aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztizko bolumena 58.867 milioi eurokoa izan zen, eta horrek inflexio puntu bat markatzen du 2023aren hasieratik zetorren joera kontraktiboan. Hala eta guztiz ere, eta gorakada gorabehera, 2005az geroztik izan den kopururik txikienetakoa izaten jarraitzen du, ingurune ekonomiko ezezagunaren iraunkortasunagatik, inbertsio eta kontsumo erabakien zuhurtziagatik, eta finantza ohituren egiturazko aldaketagatik, aurrezkia eta likidezia lehenetsita.

Aitzitik, sektore publikoko kredituak kontrako norabidean eboluzionatu zuen eta jaitsiera nabarmena izan zuen berriro. Maileguen bolumena %12,4 jaitsi zen urte artekoan, 8.433 milioi

eurora arte, azken bost urteetako mailarik baxuena izanik. Bilakaera hori administrazioek defizita kontrolatzeko eta zorpetze maila murrizteko egindako ahalegin jarraituaren ondorio da, kontsolidazio fiskalaren helburuekin bat.

Mugimendu horien ondorioz, Euskadiko kreditu osoa 67.299 milioi eurokoa izan zen, hau da, urte arteko %0,5eko jaitsiera. Uzokurdura arina bada ere, finantza doikuntzaren prozesua oraindik ez dela amaitu baieztatzen du, nahiz eta kreditu pribatua egonkortzen ari den seinale hasiberriak ikusten diren.

Gordailuei dagokienez, euskal eragileen aurrezkiak zuzenketa txiki bat izan zuen bost hiruhilekoko etengabeko hazkundearen ondoren. Gordailuen bolumen osoa urte arteko %3,7 murriztu zen, 95.635 milioi eurora arte, hau da, 3.650 milioiko beherakada izan zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Uzokurdura hori sektore pribatuan kontzentratu zen, gordailuek %2,1 egin baitzuten behera; sektore publikoak, berriz, beherakada nabarmenagoa izan zuen, %17,0koa, likidezia eskuragarriaren murrizketarekin bat etorriz.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2023	2024	2024			2025		Aldea 2022-II eta 2025-II artean	
			III	IV	I	I	II	Milioi €	Tasa
Kredituak	-4,9	-1,7	-2,9	-1,7	-1,4	-0,5	67.299,3	-5.329,7	-7,3
Arlo publikoa	-6,0	-4,2	-9,2	-4,2	-9,7	-12,4	8.432,6	-1.776,4	-17,4
Arlo pribatua	-4,8	-1,3	-1,9	-1,3	-0,1	1,5	58.866,7	-3.553,3	-5,7
Gordailuak	-1,4	4,2	5,0	4,2	2,6	-3,7	95.634,9	-2.789,6	-2,8
Arlo publikoa	1,2	5,3	13,8	5,3	1,1	-17,0	8.774,0	25,2	0,3
Arlo pribatua	-1,7	4,1	3,9	4,1	2,8	-2,1	86.860,9	-2.814,8	-3,1
Agerikoak	-8,9	0,7	-3,5	0,7	1,1	-1,5	73.089,0	-9.928,4	-12,0
Eperakoak	92,3	24,6	64,4	24,6	11,8	-5,0	13.771,9	7.113,6	106,8

Iturria: Espainiako Bankua.

Produktu motaren arabera, ageriko eta kontuko gordailuek %1,5 egin zuten behera, 73.089 milioi euroraino, eta horrek berretsi egiten du aurrezki mota horren erakargarritasun galera tasa txikiagoko ingurune batean. Aitzitik, eperako gordailuek errekupeazioari eutsi zioten, %11,8ko

hazkundearekin, 13.772 milioi eurora iritsiz, oraindik lehiakorrek diren errentagarritasunek eta aurreztaileek alternatiba egonkorragoak bilatzeak bultzatuta.

Orokorrean, bigarren hiru hilekoko datuek erakusten dute EAEko ekonomia kreditu pribatuan suspertze seinaleak agertzen hasi dela, baina finantza osasuna lehenesten jarraitzen duela. Eperako aurrezkiaren sendotzeak eta kredituaren egonkortzeak oreka handiagoa duen ingurune finantzario baten alde egiten dute, nahiz eta eragile ekonomikoen erabakietan zuhurtzia nagusi izaten jarraitzen duten.

Aurreikuspenak

2025eko nazioarteko ingurune ekonomikoa oraindik ere ziurgabetasun handiak markatzen du, bai merkataritza-tentsioen iraupenagatik, bai ekonomia aurreratu nagusien bilakaera desorekatuagatik. Estatu Batuen, Txinaren eta Europar Batasunaren arteko negoziazioak areagotu ondoren, azken akordioei esker, liberation day izenez ezagutzen den egunean iragarritakoekin alderatuta, zenbait zergen murrizketa lortu da. Hala ere, igoera berrien mehatxua oraindik ere presente dago, eta horrek inbertsioari eta kanpo merkataritzari buruzko erabakiak baldintzatuko ditu. Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, merkataritza politika murriztailearen eraginak eta gatazka foku desberdinek eragindako energia merkatuen aldakortasunak munduko BPGaren hazkundera bi hamarren murriztu dezakete 2025ean, batez ere esportazioen moderazioaren eta enpresa konfiantzaren narriaduraren bidez.

Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, hazkunde globala %3,0ekoa izango da 2025ean eta %3,1ekoa 2026an. Zifra horiek, udaberriko aurreikuspenekiko goranzko berrikuspen txiki bat dakarten arren, batez besteko historikoaren eta duela urtebete aurreratutakoen azpitik daude. Aurrerapen hori gorabidean dauden ekonomia batzuen dinamismoan oinarritzen da, hala nola Indian eta Txinan. Txinaren hazkunde aurreikuspena %4,8ra igo da 2025erako, muga zergen murrizketaren eta esportazioen aurrerapenaren eraginez. Hala ere, erakundeak ohartarazi du efektu hori iragankorra izango dela eta merkataritza fluxuen normalizazioak 2026an dezelerazioa ekar dezakeela. Ildo horretan, aurreikuspenen arabera, munduko merkataritza-fluxuak %2,6 haziko dira aurten, eta %1,9 datorren urtean; azken kasu horretan, beraz, sei hamarren jaitsiko dira apirilean aurreratutakoarekin alderatuta.

Estatu Batuetan, ekonomiak erresilientzia seinaleak erakusten ditu, nahiz eta hazkundearen osaera gero eta desitxuratuagoa izan, muga-zergen eta politika fiskal hedakorren eraginez. NDFren arabera, hazkunde ekonomikoa %1,9koa izango da 2025ean eta %2,0koa 2026an; Consensus Forecasts panelaren arabera, berriz, zifra horiek %1,7 eta %1,7 izango dira, hurrenez

hurren. Inflazioa, beheranzko joera izan arren, Erreserba Federalaren helburuaren gaintetik mantenduko da (%2,8 2025ean eta %2,5 2026an), muga zergen eragin partzialak kontsumitzaileengan eta dolarraren balio galera gero eta esanguratsuagoa delako. Lan merkatuak hozte seinaleak erakusten hasi da; enpleguaren sorrera moteldu egin da, aurreikusitakoa baino erritmo apalagoan, 2024ko eta 2025eko hasierako zifrak nabarmen berrikusi ondoren, eta langabezia tasa zertxobait igo da. Consensus Forecasts panelaren arabera, langabeziak %4,5eraino egingo du gora 2026an, eta horrek, FEDen agindu bikoitzaren ondorio, interes tasen murrizketak aurreratzea ekarri du, inflazioaren etenik gabeko bilakaeraren aurrean.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2024	2025	2026	2024	2025	2026
Munduko ekonomia	2,7	2,4	2,4	3,8	2,9	2,6
AEB	2,8	1,7	1,7	3,0	2,8	2,7
Kanada	1,6	1,2	1,1	2,4	2,1	2,1
Japonia	0,1	1,1	0,6	2,7	3,1	1,9
Eurogunea	0,9	1,2	1,1	2,4	2,1	1,8
Europar Batasuna	1,1	1,2	1,3	2,8	2,2	1,9
Alemania	-0,5	0,2	1,2	2,3	2,1	1,9
Espainia	3,2	2,6	1,9	2,8	2,5	1,9
Frantzia	1,1	0,6	0,9	2,0	1,1	1,5
Herbehereak	1,0	1,4	1,0	3,3	3,1	2,3
Italia	0,7	0,5	0,7	1,0	1,7	1,6
Erresuma Batua	1,1	1,2	1,0	2,5	3,4	2,6
Asia Pazifikoa	3,9	3,8	3,5	1,6	1,3	1,6
Ekialdeko Europa	3,3	2,2	2,5	14,7	10,4	7,4
Latinoamerika (Venezuela ezik)	2,2	2,1	2,1	14,7	6,5	5,1

Iturria: Consensus Forecasts (2025eko iraila).

Aurreikuspenen arabera, datorren urtearen amaieran interes tasak %3 baino zertxobait gorago egongo dira. Maila horrek, aurreikusitako inflazioarekin konbinatuta, interes tasa erreala ia ez zen positiboa izango, eta testuinguru hedakorra izango litzateke, argi eta garbi. Horri dagokionez, ahalegin deigarriak egin diren arren, eta zerga bilketa apur bat handitu den arren,

muga zergen kargaren eraginez, ez da espero inflexio punturik gertatzea defizit federalaren bilakaeran, zeina %6tik gora kokatuko baita berriro, merkataritza defizita eta kontu korrontekoa ere murriztu gabe.

Europako ekonomiak, bestalde, portaera apalagoa erakusten du, nahiz eta urte hasieran planteatutakoa baino dinamikoagoa izan. Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, eurogunea %1,0 haziko da 2025ean eta %1,2 2026an; aurreikuspenen adostasunak, berriz, %1,2 eta %1,1 izango dira, hurrenez hurren. Espainiaren dinamismoa (%2,6 2025ean, Espainiako Bankuak berriki egindako aurreikuspenetan) ez dator bat Alemaniaren (%0,2), Frantziaren (%0,6) eta Italiaren (%0,5) ahultasunarekin, inbertsioaren jaitsierak eta kanpo eskari apalak eraginda. Consensus Forecasts panelak Alemaniako Ekoizpen Industrialaren Indizea 2025ean murriztuko dela (-%0,8) mantentzen duen arren, paneleko kide guztiek adierazi dute Alemaniako ekoizpen industrialaren 2018an hasitako jaitsiera 2026an leheneratuko dela, eta %1,5 haziko dela, ekipamenduko ondasunek bultzatuta (%3,2), politika fiskalean oinarrituta, azpiegitura, defentsa eta sektoreko pizgarri fiskalen bidez. Ordainetan, defizita %3,4ra iritsiko da 2026an, nahiz eta zor publikoaren maila (%62,5 2024an) oraindik ere Europako batez bestekoa eta Batasuneko gainerako ekonomia handiak baino askoz txikiagoa izan.

Frantzian izandako gertaerek, lehen ministroaren dimisioarekin, 2026an defizit publikoa %5,8tik %4,6ra murrizteko aurrekontu proposamenari uko egin ondoren, Frantziako politikan ezegonkortasun sentsazioa areagotu dute, Europako azken hauteskundeetako emaitzek hauteskundeak aurreratu ostean. Oraingoz, horrek esan nahi du Frantziako bonuek 10 urterako balioa galduko dutela, eta errentagarritasun aurreikuspena hurrengo bi urteetarako %3,5 ingurukoa izango dela, 2011tik izandako mailarik altuena. Interesen ordainketek pisu txiki samarra izaten jarraitzen dute (BPGren %2,1), Italiakoaren (%3,9) edo Espainiakoaren (%2,4) aldean, azken hamarkadako arrisku prima txikiagoari esker, nahiz eta etorkizuneko arazoek pertzepzioak egungo finantza merkatuetan isla izan dezakeen. Egoera makroekonomiko ahularen itxaropenak areagotu egiten du hori guztia, nahiz eta aurtengo egoera baino hobea izan: 2026an BPG %1 inguru handituko da, eta enpresa inbertsioaren eta manufaktura ekoizpenaren atzerakadak suspertuko dira.

Euroguneko inflazioak bere horretan jarraituko du, %2 inguruan 2025ean, eta %1,7ra jaitsiko da 2026an, %1,9ra igoko delarik 2027an. Bilakaera horrek erakusten du azpiko inflazioaren presioak pixkanaka moteldu direla 2026ko lehen seihilekoan, batez ere zerbitzuetan, soldata presioak desagertzen diren heinean, azken urteotan izandako inflazio prozesuari erantzunez. Inportatutako ondasunen merkatzeak ere laguntzen du, euroak dolarraren aurrean izandako balioespen erlatiboaren ondorioz. Elementu lurrunkorrei dagokienez, elikagaien inflazioa moteldu egingo da (%2,9tik %2,3ra 2026an), eta energia prezioek jaisten jarraituko dute (-%1,6 eta -%1,1 hurrenez hurren).

Espainiako ekonomiak dinamismo handia erakusten jarraitzen du, eta dinamismo hori urtearen amaieran ere mantenduko da. Hala, Espainiako BPGa %2,7 haziko da 2025ean, eta %2,0raino motelduko da 2026an, Ceperderen azken aurreikuspenen arabera. Hala ere, INEren kontabilitatearen azken berrikuspenak goranzko doikuntzak iragartzen ditu, eta aurreikuspen guztietan orokortuko direla espero da datozen hilabeteetan. Berrikuspen horiek, gainera, pandemiaren osteko urteetan esportazioetan eta kontsumo publikoan oinarritu zen hazkunde ereduaren ordeztu, kontsumo pribatua eta inbertsioan oinarritutako hazkunde-patroi baterako biraketa iradokitzen dute, eta joera hori 2025ean eta 2026an ere mantenduko dela aurreikusten da, biztanleria aktiboaren eta enpleguaren hazkunde nabarmenarekin lotuta.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2025eko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2025		2025	2026				2026
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,7	2,4	2,7	2,1	2,0	2,0	2,1	2,0
Kontsumo pribatua	3,1	3,0	3,3	2,7	2,6	2,4	2,6	2,6
Kontsumo publikoa	1,6	1,8	1,8	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2
Kapital eraketa gordina	8,5	6,3	6,3	5,4	4,8	4,2	4,0	4,6
- Taldeko inbertsioa	13,9	7,4	10,4	6,4	5,6	4,8	4,3	5,3
- Landatutako aktib. inbertsioa	4,5	4,2	5,3	2,6	1,3	0,8	0,5	1,3
- Eraikuntzako inbertsioa	7,2	6,5	5,0	5,4	4,5	3,8	3,6	4,3
Barne-eskaria	3,7	3,3	3,5	3,1	2,9	2,7	2,8	2,9
Esportazioak	3,4	3,6	3,3	2,2	1,6	1,1	0,9	1,5
Inportazioak	6,1	6,4	5,6	5,4	4,2	3,1	2,6	3,8

Iturria: Ceperde.

Nazioarteko testuinguru ekonomikoaren azken aldiko bilakaerak euskal ekonomiarako aurreikuspenen oinarri diren hipotesi batzuk neurri desberdinetan berrikustera behartzen du. Agertoki nagusi gisa euro-dolar truke tasa duela hiru hilabete baino handiagoa onartzen da, eta horrek AEBetako politika ekonomikoaren norabide aldaketak ekarri zuen inflexio puntua berresten du, Erreserba Federalak aurreikusitako interes tasen beherapenen ondorioz areagotu daitekeena. Aldi berean, hiru hilabeterako Euriborra %2,0 inguruan egonkortzeko itxaropenari eusten zaio, eta horrek adierazten du finantza baldintzak nabarmen arinduko direla aurreikuspenaren horizontean, aurreko urteekin alderatuta. Euskal ekonomiaren esportazio merkatuak osatzen dituzten inguruko agregatu handiei dagokienez, Espainiako ekonomiaren aurreikusitako hazkundera %2,7koa da 2025erako eta %2,0koa 2026rako eta 2027rako;

ELGArena %1,5koa, %1,5koa eta %1,7koa; eta Eurogunearena %1,1koa, %1,2koa eta %1,4koa, hurrenez hurren. Bestalde, prezioen dinamika kontsumo prezioen moderazio dinamika berari eusten dio, eta esportazioen prezioek gorakada txikia izaten jarraitzen dute, geldialdi dezenteko aldi baten ondoren.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2025eko iraila)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2025		2025	2026				2026
	III	IV		I	II	III	IV	
Euriborra (3 hileko)	2,0	1,8	2,1	2,0	2,0	2,0	2,0	2,0
Euro dolar truke tasa	1,17	1,16	1,13	1,14	1,16	1,17	1,17	1,16
Espainiako BPGa	2,7	2,4	2,7	2,1	2,0	2,0	2,1	2,0
ELGAren BPGa	1,3	1,4	1,5	1,5	1,6	1,6	1,5	1,5
Euroguneko BPGa	0,8	0,6	1,1	0,6	1,0	1,4	1,8	1,2
Espainiako konts. prib. deflaktorea	3,7	3,0	3,3	2,1	2,4	2,5	2,6	2,4
Espainiako ond. esport. Deflakt.	-0,8	0,0	0,2	-0,5	1,3	2,1	2,4	1,3

Iturria: Ceprede eta Europako Banku Zentrala. Hipotesien itxiera data: 2025eko irailak 19.

Testuinguru horretan eta urteko kontabilitatearen azken bi ekitaldien goranzko berrikuspenaren ondorioz, aurreikuspenen eguneratzeak euskal ekonomiaren hazkunde profilaren hobekuntza dakar: %2,2 2025ean eta %1,9 2026an. Horrek adierazten du oraindik 2025ean hazkunde bide dinamikoa mantenduko dela, eta 2026an, berriz, hazkunde erritmo apalagoa izango dela, barne eskaria eta lan merkatua apurka-apurka moteltzen diren heinean, eta kanpo saldoa hobetzen doala Europako ekonomien susperraldiaren ondorioz.

Barne eskariaren aldetik, familien kontsumoak jardueraren euskarri nagusi izaten jarraituko du: %2,7ko hazkundera 2025ean eta %2,2koa 2026an. Igoera hori urteko bigarren hiruhilekoan izandako gorakadaren, lan merkatuaren bultzadaren eta soldata errearen hobekuntza ahalbidetzen duen desinflazio gradualaren ondorioz gertatuko da. Kapitalaren eraketa gordinak ere hazkunde esanguratsua izango du, %3,1eko erritmoan 2025ean eta %2,3an 2026an. Hala ere, kanpo ziurgabetasunak, itxaropenen normalizazioak eta SEM funtsen exekuzioaren amaierak 2026tik aurrera inbertsioaren trakzioa moteltzea ekar dezakete.

Kanpo arloaren aurreikuspenak ahulagoak dira: 2025ean kanpo saldoak hiru hamarreneko ekarpen negatiboa egingo duela proiektatzen da, eta bi hamarrenekoa 2026an. Horrek

nazioarteko eta Europako merkataritzaren erritmo motelagoarekin bat egiten du, eta bereziki eragina izango du euskal industriaren inbertsio ondasunetan eta automobilgintzako balio kateetan duen posizioan. Zenbakiak panorama nahiko negatiboa iradokitzen badute ere, neurri handi batean barne eskariaren indarrari lotutako inportazioen hazkundeak azaltzen du egoera hori. Hau da, 2023an euskal esportazioek %1,1 egin zuten behera, eta 2024an %0,1eko hazkunde apala izan zuten; 2025erako, berriz, %2tik gorako hazkundea aurreikusten da, eta 2026an ia %3koa. Nahiz eta datu horiek serie historikoarekin alderatuta apalagoak izan, azken bi urteetako emaitzak hobetzen dituzte.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2025eko iraila)

	2025		2025	2026				2026
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,3	2,2	2,2	2,0	2,0	1,9	1,9	1,9
Azken kontsumoa	2,4	2,3	2,3	2,2	2,3	2,1	1,9	2,1
Kontsumo pribatua	2,8	2,5	2,7	2,3	2,2	2,2	2,0	2,2
Kontsumo publikoa	1,0	1,6	1,2	1,7	2,7	1,7	1,5	1,9
Kapital eraketa gordina	3,4	3,3	3,1	3,1	1,7	2,1	2,4	2,3
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,5	2,5	2,4	2,2	2,1	2,0	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,4	-0,3	-0,3	-0,4	-0,2	-0,2	-0,1	-0,2
Lehen arloa	5,4	4,1	2,5	0,5	0,8	0,4	0,9	0,7
Industria eta energia	0,3	1,0	0,4	1,5	1,6	1,6	1,7	1,6
Eraikuntza	2,8	2,6	2,5	2,3	1,5	1,8	2,4	2,0
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,7	2,2	2,1	2,0	1,9	2,1
Balio erantsi gordina	2,2	2,2	2,1	2,0	2,0	1,9	1,9	2,0
Ekoizkinen gaineko zergak	2,8	2,6	2,5	1,4	2,0	1,7	1,7	1,7
BPG nominala	4,9	5,0	4,8	4,2	3,8	3,9	4,1	4,0
BPGaren deflatorea	2,6	2,7	2,6	2,1	1,8	1,9	2,2	2,0
Lanaldi osoko lanpostuak	1,4	1,2	1,4	1,1	1,2	1,1	1,0	1,1
Landunak (BJA)	1,5	1,1	1,3	0,9	1,2	1,2	1,1	1,1
Langabezia tasa	6,4	6,5	6,4	6,7	6,2	6,1	6,3	6,3

Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Eskaintzaren ikuspegitik, kanpoko bultzada ahulak eragina izango du industrian, eta sektoreak %0,4ko hazkundea izango luke. Aurreikuspen horrek esan nahi du duela hiru hilabete


aurreratutakoaren aldean bost hamarren okertu dela, baina, neurri handi batean, iazko bigarren seihilekoan hiruhilekoko hazkunde patroia berrikuspenek eragindako oinarri-ondorio tekniko bati eta azken hiruhilekoan argitaratutako datu eskasei zor zaie. Hala ere, espero da sektoreak bere hazkundearen normalizazio bideari helduko diola 2026an, kanpo merkatuen hobekuntzaren eraginez, eta horrek aurreikuspenaren bi hamarreneko goranzko berrikuspena ekarri du. Eraikuntzak, berriz, tonu ona mantenduko du duela hiru hilabeteko aurreikuspenen ildotik, %2,5eko hazkundearekin 2025ean eta %2,0ekin 2026an, finantza baldintza lasaiagoetan eta egoitza eskarian oinarrituta.

Zerbitzuak izango dira EAEko ekonomiaren hazkunde bultzatzen duten eragile nagusiak, eta aurreko %2,7ko eta datorren urtean %2,1eko hazkunde tasak izango dituzte. Bilakaera egonkor horrek etxetako kontsumoaren hedapenari lotutako zerbitzuen indarra islatzen du, hala nola merkataritza eta ostalaritza, enplegu sorreraren zati handi bat kontzentratzen dutenak, baina baita espezializazio handiagoko jardura profesionalen dinamismoagatik ere.


2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Prezioei dagokienez, aurreikuspenen arabera, BPGaren deflatorea %2,6ko igoera izango du 2025ean eta %2,0koa 2026an; horrek esan nahi du, aurreko urteekin alderatuta, moteltzeko joerari eutsiko diola. Prezio osagai batzuek nolabaiteko iraunkortasuna erakusten jarraituko duten arren, urtearen lehen erdian deflatorearen bi hamarreneko gorakada gertatu dela ikusi ondoren, joera orokorra dezeleratzailea izango da aurreikuspen aldiak aurrera egin ahala. Alde batetik, kontsumo pribatuaren deflatoreak %3 inguruan iraun du lehen bi hiruhilekoetan, eta

%2,5etik gora mantenduko da urteko geratzen den zatian. Bestetik, espero da gainerako prezioek bilakaera zertxobait handiagoa izatea. Horrela, termino nominaletan, BPGa %4,8 haziko da 2025ean, 103.007 milioi eurora iritsiz, eta %4,0 2026an, 107.105 milioira iritsiz.

Lan merkatuan, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,4 handituko da 2025ean eta %1,1 2026an; horrek esan nahi du 14.000 eta 11.000 lanpostu inguru sortuko direla, hurrenez hurren. Landunen hazkundearen antzeko dinamikari esker, langabezia tasak behera egiten jarraituko du, batez beste %6,4 izango bailitzateke 2025ean eta %6,3 2026an, eta horrek 2008tik izandako langabezia tasarik txikiena ekarriko luke. Balantzea bateragarria da lanaren produktibitatearen hobekuntza oraindik apalarekin, industria sektorearen ahultasunak baldintzatuta, nahiz eta azken berrikuspen estatistikoek erakusten duten dinamika hobea dela behin-behinean emandakoa baino.

2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (II)
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza (2025eko iraila), Ceprede (2025eko iraila), Confebask (2025eko uztaila), Hispalink (2025eko uztaila), Caixabank (2025eko ekaina), BBVA (2025eko ekaina), Eusko Ganberak (2024ko abendua), Laboral Kutxa (2024ko abendua).

Koadro makroekonomikoa eguneratu ondoren, Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak tarteko puntu batean kokatuta daude, beste erakunde batzuek egindako aurreikuspenen tartean. Zehazki, dirudienez adostasun maila handia dago jarduera %2 baino zertxobait gehiago handitzeari buruz 2025ean, eta 2026rako, berriz, aurreikuspenen arteko aldea oraindik handia da. Alde batetik, BBVAk euskal ekonomiaren dezelerazio nabarmena aurreikusten du datorren urtean, eta, bestetik, Hispalink proiektutik aurreikusten da jarduera ekonomikoak bizkortzea lortuko duela industria sektorearen jarduera hobeari esker.